

2021
KOLDO ELEIZALDE
LEHIAKETAK
XXXVI. edizioa



Ipuina Poesia Bertsoa Komikia

Antolatzailea:



Begarako Udala
Euskara Zerbitzua

Argitaratzailea: Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua

Azaleko irudia: Jon Balentziaga

Diseinua eta maketazioa: Gertu Inprimategia. Oñati.

Inprimategia: Gertu Inprimategia. Oñati

Lege gordailua: SS 42-2015

SARRERA.....	5
--------------	---

Ipuina / Poesia

1. taldea:

Saria: Gabi eta ostadarra. Anouk Izagirre.....	7
Saria: Lili eta baso misteriotua. Garazi Lonbide.....	11
Saria: Hontz magikoa. Enara Urrutia	15

2. taldea:

Saria: Zaldia eta edabe magikoa. Garazi Amesti.....	19
Saria: Gnomo erraldoia. Irati Aperribai	25
Saria: Opil magikoa. Eneko Muñoz	29

3. taldea:

Saria: Gu gara antzerkia. Edurne Berraondo	33
Saria: Euri motak. June Contreras	39
Saria: Lorrin jaunaren jaka beltza. Ainara Revilla.....	43

4. taldea:

1. saria: Nikoren enrokea. Julen Badiola	49
2. saria: Olatzen bizitza. Kaiet Heis	55
3. saria: Medailoi maitagarria. Maite Errasti.....	63

5. taldea, ipuina:

1. saria: Gauza txiki handiak. Aroa Elortza	67
2. saria: Afaria. Itziar Olaizola.....	85
3. saria: Esan gabekoak. Eider Elorza	91

5. taldea, poesia:

1. saria: Erdibitu erdiminduak. Aroa Elortza	101
2. saria: Redshift. Unai Larrañaga	111

Bertsoa

1. taldea:

Saria: **Drogak**. Aranzadi ikastolako 6. mailako ikasleak.....115

Saria: **Jolas motak**. San Martin Agirre herri eskolako 5. mailako ikasleak119

2. taldea:

1. saria: **Berrogeialdia**. Nagore Galeano.....123

2. saria: : **Bergarako jaiak**. Xabat Etxeberriarteun127

3. taldea:

1. saria: **2027**. Urko Arregi.....131

2. saria: : **Lerro artean**. Itziar Olaizola135

Komikia

1. taldea:

Saria: : **Halloween gaua**. Elene Aranburu, Ane Ibarra, Iraia Larrañaga eta Gorka Reparaz.....139

Saria: **The white investigators**. Maialen Arregi, Ainhoa Gonzalez, Henar Lopez eta Malen Pineda141

Saria: **Zirkuko istripua**. Edurne Berraondo.....143

3. taldea:

1. saria: **Etorkizuneko presoak**. Jon Errasti145

2. saria: **SOS aditzak**. Idoia Martinez147

XXXVI. edizio egin ditu aurtan Koldo Eleizalde lehiaketak, eta ez da emari faltan bere garaian gure hizkuntzari eta literatura-sorkuntzari bultzada emateko abian jarritako ekimena.

Parte hartu duzuen bergarar guztioi eskerrik asko; ume, gazte eta heldu. Eta irabazi duzuenoi, zorionak.

Poesia, prosa, bertso eta komiki; hainbat generotako lan sarituak aurkituko dituzu bilduma honetan, eta ipuin-kontaketa eta antzerkiak, berriz, www.bergarakoeuskara.eus webgunean ikus ditzakezu.

Euskarak daukan babesik onena harekin modu batera edo bestera gozatzen dugunon komunitatea da. Goazen, bada, liburu hau irakurtzera, eta ez ahaztu gozatzeaz.

Ekaitz Aranberri

Herritarren batzordeko burua



Anouk Izagirre

Lehenengo taldea

Saria

Ipuina

Gabi eta ostadarra

Balentinaga

Gabi eta ostadarra

Behin batean, Gabi izeneko ume bat bizi zen. Sei urte zituen eta mendira joatea gustatzen zitzaion. Animaliak ikustea gogoko zuen.

Ile motza zuen, bihurria zen eta txakurra zeukan.

Egun batean, Gabi Gorlara joan zen. Ostadarra ikusi zuen eta barrura sartu zen.

Mundu magiko batean azaldu zen: txokolatzeko etxeak, piruletak, litxarrerriak...

Gabi harrituta eta pozik zegoen, eta gozokiak jan eta jan, tripa bete zuen.

Lasai-lasai zegoenean euria egiteari utzi zion eta Gabi ostadarretik erori zen.

Hortik aurrera Gabi egunero ostadarraren azpian egoten zen litxarrerriak jateko zain.



Garazi Lonbide


Lehenengo taldea

Saria

Ipuina

Lili eta baso misteriozua

Baleizaga



Lili eta baso misteriotsua

Behin batean, Liliren aitona-amonek baso misteriotsuari buruzko ipuin bat kontatu zioten Liliri.

Ipuina hain polita zenez, Liliren amets bilakatu zen baso misteriotsua ezagutzea.

Egun batean, Lili baso misteriotsura joan zen. Baso horretan otso bat bizi zen, bera bakarrik. Inork ez zuen berarekin egon nahi.

Baina, neskatoak basoa ezagutu nahi zuen eta bertara joan zen.

Otsoak neska ikusi zuen eta haren atzetik joan zen. Neskak ez zuen otsoa ikusi eta bere bideari jarraitu zion.

Bat-batean zarata bat entzun zuen: “tap-tap”

Ezkerrera begiratu, eskuinera begiratu... baina, ez zuen ezer ikusi eta bere bideari jarraitu zion.

Eta berriz “tap-tap” entzutean atzera begiratu eta otsoa ikusi zuen.

—Zertan ari zara nire atzetik? —esan zion Lilik.

—Zure laguna izan nahi nuen eta... —esan zuen otsoak.

—Nire laguna izan nahi zenuen?

—Bai! Jolastuko gara?

—Ados! Harrapaketan?

—Bai, bai! Eta zein geldituko da? —galdetu zuen otsoak.

—Zu!

Ipuina

Horrenbeste jolastu zutenez nekatu egin ziren eta zuhaitz baten azpian eseri ziren. Ilundu egin zuen eta Liliri etxera itzultzeko ordua heldu zitzaion. Lagunari agur esan eta poz-pozik etxera joan zen, bere ametsa beteta.





Enara Urrutia

Lehenengo taldea

Saria

Ipuina

Hontz magikoa

Bakantziaga

Hontz magikoa

Bazen behin Aner izeneko mutiko bat. Bederatzi urte zituen eta bere familiarekin bizi zen herri txiki batean. Herri txiki horretan lau ume bakarrik bizi ziren. Herri horretan ez zegoen ikastolarik eta, egunero, autobusa hartuta ondoko herrira joaten ziren ikastolara. Herrian ez zuten parkerik, ezta zibururik ere, eta Anerrek faltan botatzen zituen.

Aner mendira joateko gogoarekin zegoen, Hontz-mendi izeneko mendira. Anerren aitona, aitona Patxik, beti kontatzen zituen Hontz-mendiko istorio magikoak. Aitona Patxik Anerri kontatzen zion mendian bizi zela desioak betetzen zituen hontz magiko bat. Anerrek hontz magikoari herrirako parke eta ziburu berri batzuk eskatu nahi zizkion, bere lagunekin bertan jolasteko. Txirrista bat, ziburu bat, eskalatzeko pareta bat, tirolina bat...

Igandea iritsi zen eta Anerrek eta aitona Patxik motxila prestatu zuten hamarretakoarekin, patata-tortila bokadiloa. Eguraldi bikaina egiten zuen Hontz-mendira igotzeko eta Aner poz-pezik zegoen. Etxetik irteten eta segituan herriko alkate Tomas ikusi zuten, aitona Patxiren oso lagun ona zena txiki-txikitatik. Alkate Tomasi Hontz-mendira goiz pasa zihoazela esan zioten, hontz magikoari Anerren desioaren berri ematera. Hamarretakoa motxilan eramaten zutela esan zioten. Alkate Tomasek hori entzutean eurekin joatea erabaki zuen, goiz gosalduta baitzuen eta gose handia zuelako. Kontu-kontuari, segituan iritsi ziren Hontz-mendiko tontorrera. Bertan hamarretakoa jan zuten. Igartzen zen alkate Tomas gose zela, isil-isilik gehiena Tomasek jan zuelako; tripontzi xamarra da Tomas!

Anerrek bere desioa paper batean idatzita zeukan eta paper hori harri baten azpian gorde zuen aitona Patxi eta alkate Tomasen laguntzaz. Aner oso urduri zegoen, beteko al ziren bere desioak? Bere lagunekin herriko ziburuetan jolastu ahalko zuen laster? Anerren galderei erantzuna alkate Tomasek eman zien:

—Aner, lasai, zure desio guztiak laster beteko dira, bihar bertan aginduko dut udaletxean ziburu berriak erosteko! —esan zion alkate Tomasek.

Aner saltoka hasi zen poz-pezik! Hontz-mendirako irteerak arrakasta handia izan zuen. Agian, hontz magikoak baino meritu gehiago zuen alkate Tomasek, baina berdin zuen, ziburu berrien desioa betetzear zegoen! Aupa alkate Tomas! Aupa!



Garazi Amesti

Bigarren taldea

Saria

Ipuina

Zaldia eta edabe magikoa

Baleizuraga

Zaldia eta edabe magikoa

Bazen behin Garazi izeneko neska bat. Astelehenero eta asteazkenero Txominen baserrira joaten zen neskatila, bertako zaldiekin egotera. Izan ere, izugarri maite zituen animalia hauek Garazik!

Txominek bost zaldi zeuzkan eta behorretako bat umea egiteko zegoen. Antza denez, moxala tripan zuen behorra sorginduta zegoen eta, ondorioz, ezin izango zuen erditu alde z aurretik edabe bat hartu ezean. Txomin oso urduri zegoen, irrikan zegoen moxala ezagutzeko baina, hori ez zen gertatuko, alde z aurretik edabe magikoa aurkitzen ez bazuen.

—Non topatu nezake nik edabe magikoa? —galdetzen zion Txominek bere buruari.

Horrelako batean, Txomin haurtzaroan ezagutu zuen mago batez gogoratu zen. Mugi korra hartu, kontaktuen artean magoaren zenbakia bilatu eta, mezu bat idatzi zion laguntza eske.

—Laureaga Dorrean elkartuko gara biharko ilargi betean —erantzun zion magoak azkar batean.

Mezua jaso bezain pronto, Txominek Garaziri jakinarazi zion magoak esandakoa eta topaketara berarekin joateko eskatu zion. Biak oso urduri zeuden gau hartan, ba koitza bere logelako iluntasunean murgilduta, ohearen alde batetik bestera bueltaka ibili ziren loak hartu arte.

Hurrengo goizean, Garazi oso goiz esnatu zen oso urduri zegoelako. Gosaldu, jantzi, eta, zuzenean, Txominen baserrirako bidea hartu zuen, erabaki horrek eskola egun bat galtzea suposatzen zion arren. Baserrira heldu zenean, behorra bisitatzera joan zen moxal txikia jaiota zegoen ikusteko. Tamalez, txikiak amaren tripa barruan jarraitzen zuen. Neskatoak zaldiari begira eman zuen egun osoa.

Gaua iritsi zen, ilargia bete-betea zegoen eta bi lagunak adostu bezala magoarekin elkartzera joan ziren Laureaga Dorrera. Bertara heltzean, honako hau esan zien magoak lagunei:

—Edabea eskuratzeko, atari magiko bat zeharkatuz iraganera bidaiatu egitea ezinbestekoa da. Gainera, ataria haurrei irekita dago soilik, helduok ezin dugu gurutzatu!

—Baina, hori ez da posible! —erantzun zuen haserre Txominek.

—Ados! Nik gurutzatuko dut ataria. Zein urtetara bidaiatu behar duan jakitea nahikoa da niretzat —esan zuen neskatoak.

—1891. urtera joango zinateke —erantzun zion magoak.

—Baldintza horietan nire erantzuna.... baiezkoa da! —esan zuen Garazik birritan pentsatu gabe.

Txomini hitz egiteko denbora eman aurretik, neskatoak, magoak aurrean jarritako ataria zeharkatu zuen. Halako batean, Garazik begiak ireki eta alde guztietara begira aho zabalik geratu zen; ahots goran esan zuen:

—Zeinen mundu polita! Printzesak, printzeak, zaldi pila bat...

Momentu hartan, Garazik lagun berri bat egiteko garaia zela pentsatu zuen. Halako batean, lorez betetako zelai koloretsu batean umetxo bat ikusi eta berarengana gerturatzea erabaki zuen.

—Kaixo, ni Garazi naiz. Nire laguna izan nahi al duzu? —galdetu zion neskatoak.

—Ni Alex deitzen naiz eta, noski zure lagun berria izan nahi dudala! —erantzun zion mutikoak.

—Azaltzeko zaila den arren, denboran bidaiatu dut, Alex. 2021. urtetik orain aurkitzen garen 1891. urtera jauzi egin dut atari magiko baten laguntzaz. Nire bidaiaren helburua, hemen duzuen edabe magiko bat lortzea da. Behorrei erditzen laguntzen dien edabea, hain zuzen ere. Lagunduko al zenidake edabea lortzen? —galdetu zion Garazik.

—Baina, hori oso misio zaila da! —erantzun zion Alexek.

—Bai, seguru nago horrela dela, baina hasi gaitezen denbora agortu baino lehen! Motxila prestatuko dugu: mapa sartu, linterna, janaria... eta ura ahaztu gabe!!! —esan

zion neskatoak.

—Tira ba, ni Dark zaldian joango naiz eta zuk Raiven zaldia hartuko duzu —esan zuen Alexek.

—Ados!!! Alex nondik pasa behar dugu edabea bilatzeko? —galdetu zion neskatok zaldian jarri bezain pronto.

—Zubitrolletik —erantzun zion mutikoak.

—Zer da hori? —galdetu zuen Garazik harrituta.

—Hori trollak bizi diren tokia da, eta hauek ezin dira enteratu handik pasa behar dugunik.

—Ondo da! Goazen edabe magikoaren bila!

Edabe magikoa topatzeko bidaiari ekin zioten, bidean makina bat arrisku topatuz: urrez gainezka zeuden ibaiak, harriz betetako bideak, haize bortitza... Zubitrollera iritsi zirenean, trollak inguruan ez zebiltzala konprobatu eta aurrera jarraitu zuten.

Zaldi gainean bi ordu eman ostean, kutxa batekin egin zuten topo. Momentu horretan, Alexek Garaziri esan zion edabea lortu ahal izateko ezinbestekoa zela kutxa hura zabaltzea. Horretarako, hiru giltza topatu behar zituzten: bata urrezkoa eta, beste biak, zilarrezkoak. Giltzak ahalik eta azkarren topatzeko bi haurrak banatu egin ziren. Behin giltzak topatuta, kutxaren parean zegoen zuhaitz handiaren azpian elkar-tzea adostu zuten.

Arratsaldeko zortziak ziren eta Alex eta Garazi zuhaitz azpian elkartu ziren. Bakoitzak zilarrezko giltza bat zekarren berarekin baina urrezko giltza topatzea falta zitzaien. Ordurako, ilun zegoen eta, bi hurrek, zerbait afaldu eta lotarako bidea hartu zuten. Lo zeudela zerbait erori zitzaion Garaziri buru gainera:

—Aaaaaaaa! Minaaaaaa!!!!!! Zer demontre izan da hori? —galdetu zuen neskatoak.

—Zer izan da hori? —galdetu zuen orduan Alexek.

—Ezin dut sinetsi!!!! Falta zaigun urrezko giltza da! —oihukatu zuen Garazik, pozez gainezka.

Hiru giltzak esku artean zituztela kutxa zabaltzera joan ziren azkar batean. Behin hiru giltzak sarrailetan sartuta, kutxa zabaldu egin zen. Barruan papertxo bat zegoen eta honako mezu hau zuen bertan idatzita:

“Oso ondo, helmugara iritsi zarete. Orain, edabea lortzeko, hiru giltzak lerroan jarri eta gogoratu erdian urrezkoa ipintzea”.

Alexek eta Garazik giltzak ondo ipini zituzten eta bat-batean, kutxa azpitik pote txiki-txiki bat agertu zen. Edabe magikoa zeukan barruan. Bi haurrak oso pozik jarri ziren; saltoka eta oihuka hasi ziren, misioa lortzea ez baitzen lan erreza izan.

Halako batean, Garazi ohartu zen ez zuela ospakizunetarako astirik; izan ere, Txomin 2021. urtean zain zeukan eta behorrak edabea hartu ezean, moxala hil egin zitekeen. Alexi esker onak ematera joan zenean, mutikoak atari magiko bat zeukan bere parean. Elkar besarkatuz agurtu eta Garazik ataria zeharkatu zuen.

Begiak ireki eta Garazik Txomin zeukan alboan. Gizona urduri zegoen, izerditan blai, eta alde batetik bestera mugitzen ari zen, ezin geldi egonik. Garazi bere alboan ikustean izugarrizko poza hartu zuen, are gehiago, honek eskutan edabea zekarrela ikustean. Besarkada estu bat eman zioten elkarri eta eskutik helduta behorra zegoen lekura gerturatu ziren. Kostata, animaliak edabea edan zuen.

Egun hartan, Garazi eta Txomin baserrian geratu ziren lotan. Orduro joaten ziren behorra zegoen tokira, moxala jaio zen konprobatzera. Goizeko lehen orduan, gosaldutik ostean, zalditegitik zetorren zarata arraro bat entzun zuten. Bi lagunak korrika bertaratu ziren eta, halako batean, moxal polit-polit bat ikusi zuten behorren alboan! Animalia polit hura ikusi bezain pronto esan zuen Garazik.

—Zubitroll izena jarriko diogu!

—Zer izen arraro da hori! Nondik atera duzu? —erantzun zion Txominek.

—Oso istorio luzea da Txomin! —erantzun zion neskatoak irribarretsua.

Eta hala bazan edo ez bazan ager dadila beste moxal bat Bergarako plazan!!!!





Irati Aperribai

Bigarren taldea

Saria

Ipuina

Gnomo erraldoia

Valentiniaga

Gnomo erraldoia

Bazen behin June izeneko gnomo erraldoi bat. Gehienek 4 cm inguru neurtzen zuten, baina berak 20 cm neurtzen zituen. June lotsatia eta bihotz onekoa zen.

Ikasturtea hasi zen eta autobusean joan behar zuen eskolara. Baina a ze sorpresa hartu zuen June! 8 cm-ko autobusa zen! June modu guztietara saiatu zen autobusean sartzen, baina ez zuenez lortu, bere bizikleta hartu behar izan zuen.

Ettxera itzuli zenean amak galdetu zion:

—Zer moduz eskolan?

—Ez oso ondo —erantzun zion June.

—Zergatik? —gaineratu zion amak.

—Bizikletan joan behar izan naizelako —erantzun zion June.

—Zergatik joan zara bizikletan? —galdetu zion aitak.

—Autobusa oso txikia zelako —erantzun zuen June.

Eta denak isildu ziren.

Hurrengo egunean, June bere bizikleta hartu zuen eta eskolara abiatu zen.

Ume batek ikusi zuen eta pena eman zion June umeari. Biharamunean, June berriro bere bizikleta hartu zuen baina, bere etxeko atean, autobusean ikusi zuen umea zegoen bizikletarekin. Eta esan zion:

—Joan naiteke zurekin bizikletan?

—Bai, noski! —erantzun zion June.

Biak batea joan ziren bizikletan.

Ettxera heldu zenean irribarre handi bat zeukan Junekek aurpegian, eta amak galdetu zion:

—Zergatik zaude gaur hain pozik?

—Autobuseko bat nirekin etorri delako bizikletan —erantzun zuen Junekek.

Hurrengo egunean, beste bost haur zeuden eta hurrengoan beste sei eta hurrengoan beste lau... eta azkenean jende mordoa zihoan bizikletan.

Junekek pentsatu zuen ia zergatik ez zuten talde bat osatzen. Besteekin hitz egin zuen eta denei ondo iruditu zitzaien.

Eta hortik aurrera taldean joaten ziren eskolara eta, gainera, ingurumenarentzat ere hobea zen!



Eneko Muñoz

Bigarren taldea

Saria

Ipuina

Opil magikoa

Bakantziaga

Opil magikoa

Eneko, Julen eta Andoni herritik gertu zegoen baso batean zeuden.

Perretxikotara joan ziren eta hamaiketakoa jateko ordua heldu zen. Denek opila atera zuten. Txorizoa edo urdaiazpikoa ez ziren falta opilaren barruan, baina Eneko-ren ogitartekotik beste zerbait azaldu zen: zizare bat!!!!

Bere lagunek broma txiki bat egin zioten eta zizareak berba egin zuen:

—Kaixo, Eneko! Zuk lau kilometro aurrera egiten badituzu altxor bat topatuko duzu. Baina, lamia bat dago zelatan, kontuz!

—Badakizue lamiek urrea erabiltzen dutela beraien orraziak egiteko eta oso zaila dela urrea bertatik atera ahal izatea, abesti liluragarriak erabiltzen baitituzte —azaldu zuen zizareak.

Hori entzutean harrিতa gelditu ziren Julen eta Andoni. Andoni beldurtia zen; al-diz, Eneko eta Julen oso ausartak ziren. Eztabaidatu ondoren lau kilometroko bidea egi-tea erabaki zuten. Luzea eta gogorra izan zen, lokatzaz betetako ibilbidea.

Bat-batean, soinu eder bat entzun zen baina, lehenago pentsatu zuten bezala, ta-poiak ipini zituzten eta, hala, ibilbidearen amaierara heldu ziren.

Kobazulo baten sarreran zeuden eta sartu egin ziren. Eskerrak Andonik motxilan linterna bat eramaten zuela beti!

Kobazuloa handia eta iluna zen eta saguzarrez beteta zegoen. Kobazuloaren erdian altxorra topatu zuten eta motxilak urrez bete zituzten. Baina, halako batean, Andoni-ren linternari pila agortu zitzaion eta aurrera jarraitzea erabaki zuten.

Oso nekatuta eta beldurtuta zeuden. Ia lur jota zeudenean izpi bat ikusi zuten. Aurrera jarraitu eta ur jauzi batean barruan zeudela konturatu ziren. Salto egin beharra zuten! Begiak ireki eta euriak esnatu zituen gure hiru lagunak...



Edurne Berraondo

Hirugarren taldea

Saria

Ipuina

Gu gara antzerkia

Bakartziaga

Gu gara antzerkia

Baziren behin Arantzazuko antzerki eskolako 4. mailako ikasle batzuk, lehiaketa batean parte hartu behar zutenak; horregatik, pertsonaiak banatzen zeuden.

Baina, arazo bat zegoen, 5 pertsonaia zeuden eta 6 pertsona ziren: Miren oso popularra baina harroputz samarra; Karlos taldeko zaharrena, baina ez trebeena; Nahia antzezle bikaina eta oso lotsatia; Mark saiatua nahi zuenean eta oso bihurria; Paula dantzari ona, baina oso beldurtia; eta, azkenik, Jon, antzezle bikaina. Jon autista zen eta horregatik garrasi batzuk urduri jartzen zuten, baina bestela besteak baino askoz trebeagoa zen.

Irakaslea Martin deitzen zen eta Jonek ez zuen gustuko, Martinek mespretxatu eginguten baitzuen autista izateagatik.

Martin pertsonaiak banatzen hasi zen:

—Miren, zu protagonista izango zara —esan zuen Martinek bere ahots grabearekin.

—Bai! —esan zuen Mirenek instagram-erako argazki bat ateratzen zegoen bitartean.

—Karlos —jarraitu zuen Martinek—, zu narratzailea izango zara.

—Ez dago gaziki —esan zuen Karlosek konbentzitututa.

—Nahia, zuk umearena egingo duzu —esan zuen Martinek hasperen eginez.

—Bale! —esan zuen Nahiak baxu-baxu.

—Mark, zuk txerriarena egingo duzu —esan zuen Martinek desesperatuta.—

—Mark!! Mark!! Etorri hona —jarraitu zuen Martinek haserre.

—Bai! Bai! —esan zuen Markek gelaren beste puntan fortnite-ko dantza bat dantzatzen zegoen bitartean.

—Paula, zuk dantzariarena egingo duzu.

—Bale! —esan zuen Paulak bere buruan konfiantza handirik gabe.

—Klasea bukatu da. Hurrengo klasera arte —esan zuen Martinek.

—Agur! —esan zuten denek batera, Markek eta Jonek izan ezik.

—¡Hasta luego Mari Carmen! —esan zuen Markek eta joan egin zen.

—Eta ni? —galdetu zuen Jonek harrituta—. Nik zerena egingo dut?

—Zuk? —esan zuen Martinek barreari ezin eutsiz—. Zuk publikoarena egingo duzu.

Orain bai, Martin barrez, barrez eta barrez hasi zen, gelditu ezinik.

—Orduan, ez dut parte hartuko, ezta? —esan zuen Jonek baxu-baxu.

—Ez! Ez duzu parte hartuko —erantzun zion Martinek nazkatzen hasita.

—Zergatik? —galdetu zuen Jonek pentsakor.

—Autista zarelako!! —esan zion Martinek barrezka.

—Orduan, autista izatearren ez didazu lehiaketan parte hartzen utziko??

—Bingo!! —esan zuen barre eta algaraka Martinek —. Eta orain alde hemendik, ordu laurden berandu noa eta!

Jon joan egin zen.

Heldu zen lehiaketaren eguna. Martin eta bere taldea azkeneko entsegua egiten ari ziren. Entsegua bukatu zenerako eserlekuak beteta zeuden, baina Jon ez zegoen han; pentsa genezake oraindik haserre egongo zela.

Ekitaldia hasi zen. Hamar talderen ostean Martini eta bere taldeari tokatzen zitzairen. Egia esanda, oso ondo egin zuten.

Aurkezleak azken taldearen txanda zela esan zuen, eta han atera zen lau pertsonaz osatutako taldea: Jon; Mikel, tartamutua, baina abeslari bikaina; Irati, Down sindromea zuen dantzari aparta; eta azkenik Aiora, minbizia zuen antzezle ikusgarria. Beraiek ere bikain egin zuten antzerkia!

Jon eta bere taldea bigarren gelditu ziren, Martin eta bere taldearekin berdinduta.

Baina, bi taldeen artean desberdintasun handia zegoen: Jon eta bere taldekideak poz-
pozik zeuden; Martinen taldean, berriz, Martin bronka botatzen zegoen bere taldekoei,
lehenengo ez gelditzearren.

Bost urte beranduago Jon, Mikel, Irati eta Aioraren taldean ehunka pertsonak nahi
zuten parte hartu. Horregatik, Jonek, Mikelek, Iratik eta Aiorak antzerki-eskola bat
erostea erabaki zuten, parte hartu nahi zuen inor ez zedin parte hartu gabe gelditu.
Antzerki eskolari “Gu Gara Antzerkia” izena jarri zioten.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila Gu Gara An-
tzerkian.



June Contreras

Hirugarren taldea

Saria

Ipuina

Euri motak

Bakantziaga

Euri motak

Hodei jauna eta Laino andrea poz-pozik zeuden. Laster, umeak edukiko zituzten. Lan asko egin zuten euren bizitzan zehar eta orain hodei txikiei tokatzen zitzairen. Azkenean jaio ziren: Izar, Lur, Eki, Ilargi eta Ur izenak jarri zizkieten.

—Ongi etorri zerura —esan zien amak.

—Orain bakoitzak lan bat izango duzue, eta lan hori oso garrantzitsua da gure planetarentzat —gehitu zuen aitak.

Urte zoriontsuak pasa zituzten Bergara herrian. Hodei txikiak ziren eta udan lan gutxi izaten zuten. Egun batzuetan bakarrik irteten ziren, eguzkiaren aurrean jarri eta beroa zuten pertsonen itzala emateko.

Baina, handiak egin ziren eta haize bolada zakar batek munduan zehar sakabanatu zituen hodei anai-arrebak. Hodei jaunak eta Laino andreak urteak pasatu zituzten beren txikitxo berririk izan gabe. Zaharrak egin ziren eta laino gris bihurtu ziren.

Handik urte askotara, berriro haize bolada zakar bat etorri zen eta Izar, Lur, Eki, Ilargi eta Ur Bergarara bueltatu ziren.

—Mutikotxoak! Zenbat denbora zuek ikusi gabe! Zer moduz? —oihukatu zien amak.

—Faltan bota zaituztegu. Zelako handiak egin zareten! —esan zuen Hodei jaunak, harrituta.

Egun horretan Bergarako zerua estali egin zen, hodei handi batzuk elkartuta.

Familia elkarturik, beraien abenturak kontatzen hasi ziren.

—Nik, izugarritzko hotza pasatu dut egon naizen lekuan. Elurtuta zegoen dena beti eta eguzkiak ez zuen berotzen. Nik eta nire lagunek elurra bota behar izaten genuen

ia-ia egunero —kontatu zien Izarrek.

—Eta non egon zara ba? —galdetu zuen Hodei jaunak.

—Antartika izeneko herrialdean —erantzun zuen Izarrek.

Ondoren, Lurrek bere bizipena kontatzeari ekin zion.

—Ni Estatu Batuetan egon naiz. Han, tornado asko zeudenez leku batetik bestera joaten ginen. Egun batean herri batean geunden eta hurrengo egunean beste herri batean esnatzen ginen.

—Ene, zenbat herri ezagutuko zenituen! —esan zuten denek batera.

—Eta zu Eki? Non ibili zara? —galdetu zion Laino andreak.

—Nik ere izugarrizko lana izan dut. Filipinak izeneko herri batera iritsi nintzen. Nik eta nire lagunek errekek jasaten dutena baino ur kantitate handiagoa botatzen genuen noizean behin, eta horrela uholdeak sortzen genituen.

—Zuek bai bihurriak! —barre egin zuen Hodei jaunak.

—Ni hemendik gertu ibili naiz, Euskal Herriko herrietan zehar. Era askotako lanak egin izan ditut: batzuetan herrietan sartzen ginen behe-lainoa sortuz, beste batzuetan zirimirri izeneko ur tanta txikiak botatzen genituen eta bestetan, berriz, txingorra ere botatzen genuen indar handiz —kontatu zuen Ilargik

—Zure aitag eta biok asko dakigu horretaz —esan zuen Laino andreak—. Urteak pasa izan ditugu horrelako lanak egiten.

Azkenik, Urrek bere istorioa kontatu zuen.

—Nik lan gutxi egin dut. Saharako basamortuan egon naiz. Oso gutxitan botatzen nuen euria. Txarrena zen bakarrik nengoela. Basamortuko laino bakarra nintzen.

Egun horretan berriro elkartu izana ospatzeko Tximist eta Ekaitz gonbidatu zituzten festa batera. Bergarako zerua argiz bete zen.

Handik aurrera denak batera bizi izan ziren Bergaran.



Ainara Revilla

Hirugarren taldea

Saria

Ipuina

Lorrin jaunaren jaka
beltza

Balentziaga

Lorrin jaunaren jaka beltza

Behin batean, botoi-familia bat bizi zen jaka beltz batean. Bilera garrantzitsuetara joateko horietakoa, “amerikana” esaten zaiona. Oso jaka polita zen. Bertan, botoi-familia bat bizi zen. Aita jakaren ezkerreko aldean zegoen josita, erdian, eta berarekin eskumako aldea lotzen zen. Mahuka bakoitzean, aitarene bi seme-alaba zeuden, eskumuturrean kokatuta.

Aita, istorio honetako protagonista, handia, beltz kolorekoa eta biribila zen. Alaia eta eskuzabala zen beti eta guztiekin. Botoi-familia bizi zen jaka, Lorrin jaunaren esekitokian zegoen, beste txamarra berde batekin batera. Lorrin jauna herri hartako alkatearen idazkari burusoila zen eta, beraz, bilera askotara joan behar izaten zuen, nola ez, amerikana beltz harekin. Esekitokia Lorrin jaunaren etxeko sarreran zegoen Loctite Super Glue 3 kolarekin zintzilikatuta.

Halako batean, txamarra berdearen kremaiera, jaka beltza, eta jakaren botoi-familia osoa gai garrantzitsu bat eztabaidatzen ari ziren; zer dira hobeak, kremaierak edo botoiak?

—Argi dago kremaierak hobeak direla. Botoiak banan-banan lotu behar direlako, eta hori lan handia delako —esan zuen kremaierak.

Nahiz eta batzuetan eztabaidatu, inguruan zeuden objektuak (esekitokia, jaka, jakan bizi zen botoi-familia, txamarra, atea, eta hiruzpalau oinetako pare) oso lagunak ziren, eta asko maite zuten elkar.

—Bai, baina kremaierak beti trabatzen dira. Eta botoiak oso dotore gelditzen dira gero. Gainera, ez da hain lan nekeza botoi gutxi batzuk lotzea —kommentatu zuen ezkerreko mahukako botoi txiki batek.

—Ez, ez da lan nekeza, baina pazientzia behar da. Eta orain jendeak pazientzia du

faltan —erantzun zuen kremaileak.

Momentu hartan, Lorrin jauna etxeko sarreran sartu zela ohartu ziren. Baina, beraiek ez zuten zertan isildu, gizakiek ezin zituztelako entzun (Toy Story pelikulan ez bezala). Gizon burusoilak jaka beltza esekitokitik hartu, eta jantzi egin zuen.

—Bere bilera garrantzitsuren batera eramango gaitu seguruenik. Hain aspergarriak dira, egun batean lo hartu nuela! —kexatu zen haurretako bat.

—Tira! Ez da hainbesterako! —esan zuen irribarretsu aita botoiak.

—Lasai, seguru azkenean ondo pasatuko duzuela —animatzen saiatu zen etxeko atea.

Pare bat ordu beranduago, bilera-gelatik ateratzen zebiltzan Lorrin jauna (eta botoi-familia, noski). Etxerako bidea ez zen oso luzea; izan ere, nahiko gertu bizi ziren udal-etxetik.

Lorrin jauna oinez zihoan bitartean, aita botoia zerbait gaizki zihoala ohartu zen, eta bere seme-alabei adierazten saiatu zen, baina momentu horretan lurrean zegoen putzu batera erori zen. Ez zekien zer gertatu zen, baina bere jakatik erori zen! “Ai ama! Zer gertatu ote da? Nola erori naiz hona?” pentsatu zuen aita botoiak.

Ez zuen min handirik hartu, urez betetako putzu batean erori baitzen. Apur bat zorabiatuta zegoen erorikoarengatik, eta zikin-zikin zegoen. Ez zekien zer egin. Oihukatzen saiatu zen, baina bere familiakoek ez zioten entzun, aurrerago zeudelako jada. “Zer egingo dut orain?”

—Kaixo! —esan zuten ateak, txamarrak, esekitokiak eta botoi txikiek, elkar agurtzen.

—Zer moduz joan da bilera? —galdetu zuen esekitokiak, jator.

—Nahiko ondo. Eta zuek, zer moduz? —erantzun zuen botoi txiki batek, Lorrin jaunak amerikana esekitokian zintzilikatzen zuen bitartean.

—Ondo. Lorrin jauna potoloago dagoela esaten ari ginen —esan zuen txamarrak—. Atzo gauean bere lagunekin irten zenean, berarekin eramanez ninduen, eta kilotxo batzuk hartu dituela sumatu nuen.

—Egia da! —esan zuen segituan jakak—. Sentsazio berbera sentitu nuen nik ere.

—Aizue, ez da norbait falta? —galdetu zuen ateak—. Aita botoia falta da!

—Arrazoi duzu! —ohartu ziren beste denak.

Botoi txikietako bat negarrez hasi zen.

—Lasai, txiki. Dena ondo irtengo da, ez urduritu —lasaitu zuen txamarra berdeak—. Plan bat pentsatu behar dugu!

Eta horrela, sarreran zeuden objektuek aita botoia erreskatatzeko plan bat presatu zuten. Hiru taldetan banatuko ziren, eta inguruko lekuetan aita botoia topatzen saiatuko ziren; amerikana eta botoi txikiak etxetik gertu zegoen okindegira joango ziren, txamarra berdea jolas-parkera, eta oinetako pare bat udaletxeko plazara. Eta ordu erdi beranduago, etxean elkartuko ziren.

Bitartean, aita botoia herriko kaleetatik hasi zen oinez, noraezean, oso galduta. Ez zekien inora joaten, txikiegia zen-eta. Ibiltzeari uztea pentsatu zuen, eta lurrean gelditu zen, botata. Oso triste sentitzen zen; berak etxera bueltatu nahi zuen, jakara, bere lagun eta senideekin. Baina ez zekien nola egin. Aspaldiko partez, aita botoia negarrez hasi zen.

Gau horretan, Lorrin jauna etxetik irten zenean lagunekin egotera, sarrerako objektuek beraien plana martxan jarri zuten. Amerikana eta botoi txikiak okindegira abiatu ziren, txamarra berdea jolas-parkera eta oinetako pare bat udaletxeko plazara. Bilatu eta bilatu ibili ziren, baina ez zegoen aita botoiaren arrastorik. Oso atsekabeketa eta itxaropenik gabe sentitu ziren.

Ordu erdi beranduago, etxean elkartu ziren; inork ez zuen aita botoia topatu.

—Eta orain zer egingo dugu? —esan zuen txamarra berdeak—. Gure plana bikaina zen, baina ez du funtzionatu.

—Faltan botatzen dut aita botoia —esan zuen esekitokiak.

—Baita nik ere —esan zuten beste guztiek.

—Aizue, ezin dugu amore eman! —esan zuen ateak—. Ezin gara egon gure bizi-

tza osoan triste. Seguru nago aita botoia kalean ibiliko dela, galduta eta bakarrik. Beste leku batzuetan bilatu behar dugu. Zer iruditzen zaizue? Bigarren saiakera bat egingo dugu?

Hurrengo egunean, gauez, etxeko objektu guztiak joan ziren aita botoiaren bila. Kuxinak, ordenagailua, apaleko liburuak, telebistako aginte-gailua... Eta objektu bakoitza herriko leku desberdin batera joan zen. Talde handi bat zen, eta aita topatu nahi zuten. Denak batera indartsuagoak ziren.

Jaka eta botoi txikiak, plaza parean zegoen kale batean zeuden. Bilatu eta bilatu ibili ziren. Lan zaila zen, nahiz eta aita botoia botoien artean handiena izan, oso objektu txikia zelako.

Bilatzen ordu laurden aritu ondoren, mirari bat gertatu zen. Aita botoia, han zegoen! Iturri baten ondoan zegoen, lurrean etzanda. Zorabiatuta zegoen, eta oso zikin. Elkar besarkatu zuten, negar egin zuten... momentu hura oso polita izan zen. Etxera joan ziren, aita botoia jakaren mahukun artean zegoen, bero-bero. Etxera heltzerakoan, beste guztiak etxean zeuden jada, sarreran itxaroten.

—Hemen dago! Aita botoia topatu dugu! —oihukatu zuen oso alai mahuka ezkerreko botoi txiki batek.

Sukaldeko txorrotaren azpian jarri zituzten botoia eta jaka, garbitzeko. Ondoren, toalla baten gainean jarri zituzten lehortzeko.

—Aita, zer moduz zaude? —galdetu zion botoi txiki batek aita botoiari.

—Ni? Ni munduko botoirik zoriontsuena naiz —erantzun zuen aita botoiak, irribarretsu.

Jakak eta botoiak, garbituta eta lehortuta zeudenean, hariari eta jostorrazari laguntza eskatu zieten eta haiek aita botoia jakara josi zuten, bere lekuan. Aita botoia zoriontsu sentitzen zen. Bere lagun eta senideekin zegoen berriro.



Julen Badiola

Laugarren taldea

I. saria

Ipuina

Nikoren enrokea

Baketsiara

Nikoren enrokea

Bazen behin Niko izeneko mutil bat, Donostian bizi zena bere familiarekin: aita, ama eta bi anai-arreba.

Asteburuetan Niko eta bere familia hondartzara, mendira eta bizikletan ibiltzera joaten ziren, baina berari gehien gustatzen zitzaiona bere lagunekin jolastea zen: harra-paketan, ezkutaketan, salto-saltoan...

Lagun asko zituen eta bere lagun guztiei futbolean jokatzera gustatzen zitzaien. Tamalez, Niko ez zen batere futbolzalea, baina lagunekin jolastu nahi bazuen ez zuen beste erremediorik futbolean ibiltzea baino. Egunero zebiltzan futbolean, herriko parke, kale eta txoko guztietan baloiaren atzetik eta Niko ere, bakarrik ez gelditzeko, beraiekin ibiltzen zen nahiz eta futbola ez zuen oso gustuko.

Futbol-talde batean jokatzeko adina izan zutenean, bere lagun guztiak futbolean apuntatu ziren. Hasieran, bera ez zen apuntatu, baina asko pentsatu ondoren konturatu zen futbolean apuntatzeak ondo egingo ziola, batez ere lagunekin denbora gehiago pasatzeko, eta halaxe izan zen.

Entrenamenduetan Niko ez zen batere eroso sentitzen. Baloiak beldurra ematen zion, eta baloia bere ingurura iristen zen bakoitzean, ihes egiten saiatzen zen. Entrenamenduetan gaizki pasatzen bazuen, partiduetan are eta okerrago. Oso urduri jartzen zen aurreko egunetik, eta beti aurkitzen zuen aitzakiaren bat ez jokatzeko: hankako mina, tripako mina, buruko mina... Behin edo behin, nahita ere utzi zituen futboleko botak etxean.

Donostian nazioarteko txapelketa bat antolatu zuten 70 talde ezberdinekin. Nikoren taldea oso ona zenez, gonbidatu egin zuten. Taldekide guztiak oso pozik zeuden euren lehenengo aldia zelako horrelako txapelketa garrantzitsu batean baina, bes-

talde, Niko ez zegoen bere taldekideak bezain pozik nahiz eta inori ez zion ezer esan. Txapelketako hasierako partiduak oso erraz irabazi zituzten eta finalerako sailkatzea lortu zuten, baina finala ez zen hasierako partiduak bezain erraza izango. Aurkari, Alemaniako talde bat izango zuten, azkenengo hiru urteetako txapelduna. Harrigarria badirudi ere, Nikok aitzakia pila bat jarri zituen ez jokatzeko eta finalera minutu bakar bat ere jokatu gabe iritsi zen.

Finaleko eguna heldu zen, denak oso urduri zeuden, baina jokatzeko irrikan, Niko izan ezik. Partidua hasi orduko, ekipoko atezainak min hartu zuen eta ordezkoa irten zen futbol-zelaira. Aurkariak oso gogor jokatzen zuten eta beste jokalaririk bat ere lesionatu egin zen. Taldeko aurrelariak min hartu zuen eta entrenatzaileari zelaitik irten nahi zuela esan zion. Niko, hori entzutean, oso urduri jarri zen eta tripako mina zuela esan zion entrenatzaileari, bere burua arriskuan ikusten zuelako. Ardura handiegia zen berarentzat taldeko jokalaririk onena ordezkatzeko, baina ez zuen izan beste aukerarik ez zegoelako beste inor ordezkoren aulkian. Azkenean, Niko futbol zelaira irten zen aurrelari postuan jokatzeko.

Nikoren taldeak irabazteko aukera oso garbiak izan zituen, baina Niko ez zen gai izan gol bakar bat ere sartzeko. Azkenean, 0-0 bukatu zen partidua, eta penalti jaurtiketan erabaki behar zen txapelketako irabazlea. Taldekide guztiek jaurti eta gero, partiduak berdinduta jarraitzen zuen eta Niko bakarrik falta zen jaurtitzeko. Bere jaurtiketa erabakigarria zen, ez bazuen penaltia sartzen galdu egingo zuten eta sartzen bazuen, jarraitu egingo zuten penaltiak jaurtitzen.

Hiru pausu egin zituen atzera indarra hartzeko, arnasa sakon hartu eta penaltia jaurti zuen. Atezaina lurrera erori zen penaltia bota baino segundo bat lehenago eta Nikok, urduri, gehiegi pentsatu gabe eta lurrera begira, porteria osoa hutsik zuela baloia jaurti zuen, baina baloia kanpora joan zen.

Baloia kanpora irten bezain laster beste taldeko jokalaririk guztiak jauzika eta algaraka hasi ziren pozaren pozez finala irabazi zutelako. Niko burumakur gelditu zen. Hase-re begirada ikusten zuen bere taldekideen aurpegietan; ezer esan gabe ere konturatu zen berari botatzen ziotela errua eta bera zela arduradun nagusia. Aldageletan inork ez zion ezer esan, animo hitz bat ere ez zuen jaso eta bere burua baztertuta sentitu zuen.

Etixerako bidean, finaleko penaltia ezin zuen burutik kendu eta bere gain hartzen zuen porrotaren ardura. Bere pentsamenduetan murgilduta zegoen bitartean, iragar-

kiak jartzen diren taula batean orri zahar bat ikusi zuen “Etorri gurekin xakean jolastera” eta helbide bat jartzen zuen: “Gaztelekuko sotoa”. Bi aldiz pentsatu gabe hurrengo egunean bertara joatea erabaki zuen. Etxera heldu zenean, oraindik goibel zegoen, oso gutxi jan zuen eta arratsalde guztian ez zen bere gelatik irten. Bere gurasoak kezkatuta zeuden eta futbol partiduari garrantzia kentzen ahalegindu ziren, baina Nikok ez zuen besterik buruan.

Hurrengo egunean, eskolatik irten ondoren, Gaztelekuko sotora joan zen eta eskailerak jaitsi ondoren ate zahar handi bat ikusi zuen. Bi aldiz jo zuen, baina inork ez zion erantzun. Apur bat itxaron ondoren atea zabaltzea erabaki zuen. Oso pisutsua zen eta zarata handia ateratzen zuen mugitzean. Barruan gizon zahar bat zegoen, burusoila, bizar zuri luzearekin eta betaurreko zahar batzuk zituen kristal oso potoloarekin. Gizona mahai zahar baten aurrean zegoen eserita eta xake taula zahar bat zuen aurrean. Gelan argi gutxi zegoen eta hotz egiten zuen. Hori guztia ikustean, Nikok alde egitea pentsatu zuen baina, berehala, gizon nagusi hark galdetu zion:

—Kaixo. Norbaiten bila al zabilta?

Nikok zalantza egin zuen, baina erantzun zion:

—Bai. Xakean jokatzen ikastea gustatuko litzaidake.

—Ba, hau da toki egokia. Sartu eta hartu aulki bat.

Gizon nagusi hark Jose Raul zuen izena eta xakeko pieza ezberdinen mugimenduak irakasten hasi zitzaion. Hasieran, Nikori oso zaila iruditzen zitzaion, pieza asko eta mugimendu ezberdin asko zeudelako.

Jose Raul irakasten zebilen bitartean neska-mutil gehiago hasi ziren agertzen. Gelan sartu eta bertan zeudenak agurtu ondoren, apaetik xake taula eta piezak hartu eta elkarren aurka jokatzen hasi ziren. Nikok ez zuen inorekin hitz egin oso lotsatia zelako, baina egunak pasa ahala lagun berriak egiten hasi zen. Jose Raulez gain, Pedro izeneko irakasle zahar eta jator batek ere ematen zizkieten klaseak.

Niko futboleko baino askoz erosoago egoten zen eta askoz gustukoago zuen xakea. Etxerako ere erosi zuen xakean jokatzeko taula bat. Aitarekin ibiltzen zen eta aitari erraz irabazten zion, horregatik aitak bere maila hobetzeko xakeari buruzko liburu bat erostea erabaki zuen. Hasieran liburua asko erabiltzen zuen eta ohera joan baino lehenago

jokaldiak ikusten eta jokaldi berriak egiten ibiltzen zen. Nikok oso maila ona zuela konturatu zen eta, batez ere, jokaldi batzuk oso ondo egiten zituela, baina jokaldi guztien artean bazegoen bat inork baino hobeto egiten zuena, enrokea; erregea eta dorrea ez baidituzu partidu osoan ukitu, truke bat egin dezakezu. Maisuak ere ez zuen berak bezain ondo egiten, momentu egokian egiten zuen beti piezen trukaketa eta partida ia galduta zuenean enrokeari esker erregeak ihes egitea lortzen zuen eta aurkaria ustekabea harrapatzen zuen.

Gipuzkoako txapelketa jokatu behar zen eta maisuei ikasle bat aukeratzeko esan zieten txapelketara joateko. Pedro eta Jose Rauli denen artean txapelketa bat egitea bururatu zitzairen, eta irabazten zuena joango zen Gipuzkoako txapelketara. Txapelketa Nikok irabazi zuen. Orduan, Niko joatea erabaki zuten.

Txapelketan parte hartu zuen jendea oso ona zen, ia denak txikitatik zebiltzan. Poliki-poliki, Niko partidak irabazten joan zen eta konturatu orduko finalerako sailkatuta zegoen. Partida oso gogorra izan zen. Azkenean, aurkariak guraizeen matea egin zion, eta Nikok finala galdu zuen. Partida osoan aurkaria baino hobeto aritu zen arren, ustekabea harrapatu zuen azkenengo momentuan. Nikorentzat ikasgai bat izan zen eta ez zen haserretu, justu kontrakoa, oso pozik jarri zen. Alde batetik, txapelketako jokaldirik onenak bereak izan zirelako eta, beste aldetik, oso ondo pasatu zuelako. Inoiz ez zuen galtzeko beldurrik izan.

Hurrengo egunean, eskolatik irten zenean, ziztu bizian, arratsaldeko ogitartekoa jan gabe Gaztelekuko satora joan zen. Sartu zenean lagun guztiek txaloka hartu zuten. Guztiei bere esperientzia kontatu zien, lagun guztiek aho zabalik entzuten zuten bitartean. Azkenean, Nikok gustuko gauza bat aurkitu zuen. Pozik joaten zen xakera, lagun berriak egin zituen eta atzean gelditu ziren iraganeko beldur eta kezak. Nikok bere bitzako enrokerik onena egitea lortu zuen.



Kaiet Heis

Laugarren taldea

II. saria

Ipuina

Olatzen bizitza

Bakertziaga

Olatzen bizitza

Bazen behin Olatz izeneko neska bat. Olatzek Down sindromea zeukan eta bizitza berarentzat oso gogorra izan zen. Olatz oso pertsona zoriontsu eta dibertigarria zen, beti umore onean egoten zen eta inoiz ez zen inorekin haserretzen; zalantzarik gabe, mundu honetako pertsonarik onenetariko bat zen. Bere bizitza osoa hitz bakar batean deskribatzen zen: “zoriontsu”, eta horixe zen bera, Olatz zoriontsua zen, baina ez luzaroan. 11 urte betetzean, eskolaz aldatu behar izan zuen, ikasturte berri bat hasi behar zuelako Zarauzko institutuan.

Abuztua zen eta Olatz eta bere gurasoak Ibizan zeuden udako oporrak primeran disfrutaten.

Egunero hondartzara joaten ziren eta denbora asko ematen zuen hoteleko igerilekuan ere. Abuztuaren 15ean Olatzek mutiko jator bat, Lucas izenekoa, ezagutu zuen hondartzan eta minutu pare batez ezagutu ondoren oso lagun egin ziren. Handik aurrera egunero elkarrekin jolasten ziren eta opor guzti-guztiak elkarrekin pasatu zituzten. Handik hamabi egunera Olatzek Getariara bueltatu behar zuen eta Lucasi agur esan zion. Agur tristea izan zen eta Olatzek ezin izan zion eutsi eta negarrez hasi zen. Lucas, zalantzarik gabe, Olatzentzat bere lagun bakanetakoa zen, eta asko kostako zitzaion bere agurrari aurre egitea. Lucasek paper batean idatzi zion helbidea eta Olatz Marbellan bizi zela konturatu zenean, berehala konturatu zen bere aitona-amonak bizi diren hiri berean bizi zela. Horri esker pozik jarri zen hurrengo urtean Lucas ikus zezakeela jakin zuenean, hurrengo urtean aitona-amonekin oporretan joan zitekeelako. Azkenik, Lucasek Olatz zegoen tokira hurbildu eta besarkada handi bat

eman zion. Egun ederrak izan ziren Olatzentzat eta ez du Lucas inoiz ahaztuko, beti izango da bere bihotz handiaren parte.

Egun batzuk igaro ziren, eta Olatz prest zegoen ikasturte berria Zarautzen hasteko. Ziur zegoen ikasketetan laguntza gehiago beharko zuela, baina, aldi berean, urte bikaina izango zela sinetsita zegoen. Lehenengo egunean Olatz gurasoekin iritsi zen institutura eta barrura sartu aurretik musu bana eman zien. Urduri samar zegoen, baina oraingo honetan bere buruaz ziur zegoen. Segundo gutxira Olatzek arnasa hartu eta ezagutzen ez zuen jendearekin batera abentura berrian murgildu zen. Eraikina oso handia zen eta jende asko zegoen. Olatz estutzen hasi zen, baina lasaitu egin zen bere burua lasai egoteko konbentzitu zuenean. Lehenik Olatz zuzendaria-rengana joan zen instiko informazioa jasotzera, eta ondoren, zeuden milaka geletako batean sartu zen. Berari 1 C ikasgela egokitu zitzaion eta gelako lehen lerroan kokatu zen. Handik segundo gutxitara, emakume gazte bat sartu zen klasera, eta laster kon-turatu zen bere tutorea izango zela ikasturte horretan zehar. Tutoreak Miren zuen izena eta ilehoria zen, begi marroiekin. Bakero arrunt batzuk eta kamiseta zuri bat zituen jantzita. Olatzek pentsatu zuen irakasle bikaina izango zela eta oso atsegina ikasleekin.

Eguneko lehen orduak ikasleek ikasturteko programa guztiaren berri izateko baino ez zuten balio izan, eta Olatz bere lehen apunteak idazten hasi zen, arrosa kolo-reko koaderno batean. Hamaiketako jateko ordua iritsi zen, eta ikasle guztiak jolas-tokira joan ziren dibertitzera. Olatz, hasieran, izkina batean eseri zen, bere ondoan inor ez zuela, baina bere beldurrei aurre egin eta lagun berriak egitera joatea erabaki zuen. Bera zegoen lekutik metro batzuetara neska kuadrilla bat zegoen hizketan eta barrezka. Olatzek, haiek ikustean, pentsatu zuen jatorrak izango zirela berarekin, eta ez zutela diskriminatuko bere berezitasunagatik, baina haiek zeuden lekura heldu zenean...

—Kaixo! Nire izena Olatz da eta zuen laguna izatea gustatuko litzaidake! —aur-keztu zen.

—Ehh barkatu, baina ez dugu zure lagunak izan nahi... Sorryy —erantzun zion kuadrilla hartako neska batek.

—Baina... baina zergatik ez duzue nire lagunak izan nahi? —galdetu zion Olatzek triste-triste.

—Gaixotasun arraro bat duzulako eta ez dugulako nahi zu gure kuadrilla popu-

larrean sartzerik —erantzun zion neska berak barre eginaz.

—Egia da ez naizela zuek modukoa, baina hemen ez dut lagunik eta denok moduan, ondo pasatu nahi dut! —azaldu zion Olatzek.

—Ba hor konpon, gure kuadrillan ez zara sartuko, eta kito —oihukatu zioan kuadrillako Ariana izeneko beste neska batek.

—Mesedez... —Olatzek erregutu zion.

—Ezetz ba! Kanpora, zoaz beste kuadrilla baten bila! Beno zurekin egon nahi badute noski. Hala ez bada, bizitza osoan bakarrik egon beharko duzu jajaja —barre egin zuten denek batera.

Olatz korrika institutuko komunetara joan zen eta bat-batean negarrez hasi zen. Lagunak egiteko desiatzen zegoen, baina lehenengo egunean behintzat, ez zituen bere ametsak lortu.

Egunak pasatu ziren eta Olatzek oraindik ez zuen lagunik egiten. Oso triste zegoen eta bere berezitasunagatik zela konturatu zen; inork ez zuen lagun gisa nahi eta inork ez zuen bere ondoan egon nahi. Berarentzat dena infernua zen, baina den-dena aldatu zen urtarrila heldu zenean. Urtarril hasieran bere gelakide guztiek Olatzi txan-txak egitea eta bere fisikoarekin sartzea erabaki zuten. Hasieran bere mahaian ohar-txoak jartzen hasi ziren zera esanez: itsusia zara, betaurreko zatarrak dituzu!, ez zara normala!, Potola!, gure institututik joan eta ez bueltatu inoiz! Egun hartatik aurrera, Olatz bullyingaren biktima bihurtu zen.

Den-dena Olatzentzat oso zaila izaten zen, bere ikaskide guztiak beraz burlatzen zirelako institutuan sartzen zen momentutik. Gurasoek ez zuten alaba institutuan jasaten ari zenaren berri, Olatzek ez baitzien ezer esaten gai horri buruz; izan ere, lotsa ematen zion gurasoek eskolan bullyinga egiten ziotela jakiteak. Olatzek negarrez ematen zituen egunak, etengabe, eta bere buruari galdetzen zion ea zergatik gertatzen zitzaizkion gauza horiek guztiak, berak zoriontsu izan eta besteak zoriontsu egin nahi zituenean. Egun batean, bere etxean bakarrik zegoela, bere bizitzari amaiera ematea pentsatu zuen eta eguna pasa ondoren, maiatzaren 30ean, bere buruaz beste egitea erabaki zuen.

Egun eguzkitsua zen eta lasaia. Olatz bere etxera heldu zenean bere gurasoak lanean zeuden. Etxean bakarrik zegoen eta bere logelan motxila laga ondoren, paper bat eta boligrafo bat hartu eta agurtzeko oharra idazten hasi zen. Gutunean hau idaz-

ten hasi zen:

Guraso maiteak:

12 urte ditut dakizuenenez eta momentu oso politak bizi izan ditut, gehienak zuen ondoan eta ez naiz ezertaz damutzen. Lagun oso on bat ezagutu dut uda honetan Lucas izenekoa eta gustatzen zaidala aitortu behar dut, baina beste aldetik, oso gaizki pasatzen ari naiz, asko ari naiz sufritzen, baina ez dakit nola eskatu laguntza; ikastetxean bullyingaren biktima naiz nire izaeragatik eta gaixotasun hau edukitzea kaka bat da, ez daukat lagunik, ezta kuadrillarik ere. Aurten bizitza asko konplikatu zait eta bizitzeko gogoa kendu zait eta horregatik betirako agurtzen zaituztet. Eskerrik asko denagatik aitatxo eta amatxo, laster arte!

Maite zaituztet.

Olatz

Gutun hau idazten bukatu zuenean, sukaldeko mahaian laga zuen, baina bat-batean bere ama etxean sartu zen. Olatzek laster batean gutuna ezkutatu zuen sukaldeko kajoi batean, baina zoritxarrez edo zorionez bere amak Olatzek non ezkutatu zuen ikusi zuen.

—Ze maite? Zer zabilta ezkutatzen? —galdetu zion bere amak.

—Eee... Ezer ez amatxo, ezer ez —esan zion Olatzek.

—Jajaja maite, badakit noiz esaten didazun gezurra, eee —erantzun zion bere amak barrezka.

Ondoren bere ama sukaldean sartu zen eta kajoian begiratzen hasi zen gutuna aurkitu arte. Bat-batean gutun-azal bat aurkitu zuen kajoian eta barruan orri bat zegoen. Ama oso harrituta gelditu zen eta gutun-azala zabaltzen hasi zen. Olatzek ez zabaltzeko esan zion.

—Amatxo ez zabaldu! ez da ezer. Amatxo benetan, ez zabaldu mesedez, tontoke-ria bat da —hasi zen bere ama konbentzitu nahirik.

Amak gutun-azala zabaltzen jarraitzen zuen Olatz hizketan ari zitzaion bitartean, amak ez zion jaramonik egiten, jakin-min handia zuen gutun horretan zer jartzen zuen jakiteko. Gutun-azala ireki zuenean, eskutitza hartu eta, birritan pentsatu gabe, alabak idatzitakoa irakurtzen hasi zen. Gutuna irakurtzen ari zela, konturatu zen alabak bere buruaz beste egin behar zuela, eta, eutsi ezinik, negarrez hasi zen. Ezin zuen sinetsi Olatzek egin nahi zuena, erokeria zen bere alabaren ideia! Dударik gabe, gutuna malko artean irakurtzen amaitu zuenean, besarkada handi bat eman zion alabari.

—Zergatik Olatz? Zergatik nahi duzu hori egin? Zer pasatzen zaizu maite? —galdetu zion bere amak malko artean.


—Ez dakit amatxo, gaizki pasatzen ari naiz; eskolan oso gaizki nago eta nire izarerekin sartzen dira nire ikaskideak —erantzun zion Olatzek negarrez hasi zen bitartean.

Gai horri buruz hitz egiteari utzi ondoren, amak eskolaz aldatzea eta Zumaiaiko institutu batera eramatea erabaki zuen. Aita lanetik heldu zenean, amak gertatutakoa azaldu zion eta aitak eskolaz aldatzeko proposamena onartu zuen. Hurrengo egunean eskolako zuzendariarekin hitz egin zuten eta zuzendariak Olatzi bullynga egin zioten ikasleekin hitz egingo zuela esan zien, baina berdin-berdin bere gurasoek ikastetxez aldatuko zuten. Hirurek zuzendariarekin hitz egin ondoren, etxera iritsi zirenean (aitak, amak eta Olatzek), Olatzen bizitzari buruzko elkarrizketa luzea izan zuten, eta elkarrizketaren amaieran Olatzek esan zien oraindik ez zegoela prest institutu berri batean hasteko. Gurasoek bere hitzak entzuterakoan erabaki zuten Olatz Zumaiaiko ikastetxean udako oporrak pasa ondoren hasiko zela, eta ekainean Olatzek psikologoarenera joan beharko zuela, bizi zuen guztiari aurre egiten laguntzeko.

Uztaila iritsi zen eta ofizialki Udan zeuden. Bere gurasoek, bere alabak terapia psikologikoz betetako hilabete bat izan ondoren, sorpresa bat ematea erabaki zuten, eta uztailaren 12an autoa hartu eta Marbellarako bidea hartu zuten. Olatzek oraindik ez zekien ezer bidaiaz, eta bide osoa egin zuen nora joan behar zuten galdezka. Marbellara iristean, eraikin handi baten parean aparkatu zuten autoa, eta amak begiak ixteko esan zion Olatzi. Hirurak autotik irten zirenean, amak begiak irekitzeko esan zion Olatzi, eta ireki zituenean ikusi zuen aitona-amonak aurrean zituela. Olatzek ezin zuen sinetsi eta zuzenean besarkatzera joan zen. Marbellan zegoela jakiterakoan, bere laguna, Lucas, hiri hartan bertan bizi zela konturatu zen. Olatzek aitona-amonei galdetu zien ea Lucasen gurasoak ezagutzen zituzten, eta amonak ezagutzen zituztela esanez erantzun zion. Olatz, amonaren hitzak entzutean, oso pozik jarri zen eta aitona-amonei Lucasen etxera joateko proposatu zien. Aitona-amonek proposamena onartu zuten eta Lucasen etxerako bidean jarri ziren.

Lucas bizi den auzora berehala iritsi ziren eta Olatzek Lucas ikusteko gogo handia zuen. Autotik jaitsi ziren eta beraien parean zegoen etxera abiatu ziren. Ondoren, bere amonak etxeko txirrina jo eta Lucasek atea zabaldu zuen. Bat-batean Olatz,

Lucasen ondoan zegoen neska ikusterakoan, bere ikaskidea zela konturatu zen, Ariana zen! Oso harrituta gelditu zen Ariana ikusterakoan, baina berdin-berdin Lucasek eta Olatzek besarkada handi bat eman zioten elkarri. Lucasek Ariana bere lehengusina zela azaldu zion eta Arianak lehenik eta behin barkamena eskatu zion Zarautzen ikasturte osoan sufritu zuen guztiagatik. Azkenean, Olatzek barkamena onartu zuen eta handik aurrera oso lagun onak bihurtu ziren. Arianak ikasi zuen ez zirela pertsonak itxuragatik bakarrik epaitu behar eta handik aurrera uda guztia batera pasatu zuten. Lucasek Arianari Olatz ezagutu zuen pertsonarik zoragarriena zela kontatu zion, eta horrelakoa zen Olatz, pertsona zoragarria, beti irribarre batekin zegoena.



Maite Errasti

Laugarren taldea
III. saria

Ipuina

Medailoi maitagarria

Bakertziaga

Medailoi maitagarria

Bazen behin, Kolore izeneko, 56 urteko gizon bat. Kolore ez zen besteak bezalakoa, desberdina zen. Beste pertsonak kolore guztiak eta alaiak ikusten zituzten bitartean, gizon honek dena grisa eta beltza ikusten zuen. Ez zen bereziki alai, eta inoiz ez zen bere aurpegian irribarrerik agertzen. Kaletik ibiltzean jendea zorionsua zela iruditzen zitzaion, baina bere burua ispiluan ikustean, pertsona triste bat baino ez zitzaion ageri. Egoera hartaz nazkatuta, gauzak aldatzea erabaki zuen, baina ez zekien nondik hasi.

Egoera hartan, bere etxe azpian zegoen “Alai” izeneko dendara sartu zen. Dendan sartu eta aho zabalik gelditu zen. Emakume eder bat ikusi zuen, gutxi gorabehera bere adinekoa. Ile leun, begi handi eta hanka amaigabeak. Inoiz ikusi zuen emakumerik politena. Bere kamisetan, Izaro zuen idatzita. Kolorek ahoa zabalik zuela konturatu bezain pronto, izutu egin zen eta salto handi bat eman zuen. Emakumea barrezka hasi zitzaion, eta gizona gorri-gorri jarri zen. Beraz, andrea elkarriketarekin hasi zen:

—Kaixo, zeren bila zabilta?

—Ba, ba, ba... gustatuko litzaidake bizitzako kolore guztiez gozatzea, alai egotea, zorionsu, pozik bizitzea...

—Zenbat gauza nahi dituzun! —esan zuen neskak—. Ahal dudana egiten saiatuko naiz.

Ordu pare bat egon ziren hizketan, eta Izarok hainbat saiakera egin zituen Kolorek irribarre txiki bat egiteko. Hasieran, bakarrik ahoa zabaltzen zuen, “a” letra esaten dugunean bezala. Ondoren, Izarok hamaika txantxa egin zizkion Koloreri, baina ezinezkoa izan zen. Azkenean, Izaro nekatuta, kafe batzuk hartzera joan zen, atsedean pixka bat hartzeko. Batean, estropezu egin zuen alfonbra batekin eta kafe guztia bota zion gainera gizonari. Orduan izugarrizko barre-algara bota zuen. KAR, KAR, KAR, ezin zuen gelditu eta Izarok ere ezin izan zion barreari eutsi.

—Azkenean lortu dut! Barre egin dut —esan zuen alai Kolorek.

—Bai, egia da. Eta ikusten duzu orain beste kolorerik?

Gizonak bere ingurura begiratu zuen kolore berri baten bila, baina dena berdin ikusten jarraitzen zuen: triste eta gris. Beraz, buruarekin ezetz esan zuen. Berehala, irribarrea aurpegitik joan zitzaion, eta betiko berdineraren itzuli zen.

—Ez, ez ipini triste —egin zuen salto Izarok—. Saiatzen jarraitu behar duzu. Badakit ez dela erraza, baina zerbait lortu nahi baduzu ezin duzu etsi!

—Arrazoi duzu, baina zer egin ahal dut?

—Agian, kanpora joan al gara, buelta bat ematera eta disfrutatzen. Zer iruditzen zaizu?

—Bai, ideia bikaina! Goazen —erantzun zuen Kolorek.

Denbora dezente ibili ziren, baina gizonak ez zuen beste ezer berririk ikusten. Izarok, azken saiakera bezala, zera esan zion:

—Begira, itxi begiak, eta imajina ezazu nolako bizitza gustatuko litzaizukeen bizitzea.

—Kolorez eta bizipozez inguratuta bizitzea gustatuko litzaidake, kolore ilun eta argiak edonon aurkitzea.

—Lortuko duzu! Bizitza ikusteko modua zure esku dago. Triste eta grisa ikusi nahi baduzu, tristea izango da, baina benetan kolorez beteta ikustea nahi baduzu, hori ere lortzeko gai izango zara.

Momentu hartan, Izarok medailoi bat atera zuen poltsikotik eta Koloreri luzatuz, bere baitan benetan zuen desioan pentsatzeko eskatu zion.

Gizonak hasieran zubi triste bat ikusi zuen arren, pixkanaka ostadarraren kolore guztiak agertu zitzaizkion.

Begiak altxatu eta Izarori zer ikusten zuen esatera zihoanean, hura bere ondoan ez zegoela konturatu zen; desagertu egin zen, ez zuen inondik ikusten. Ustekabean, medailoia hitz egiten hasi zen:

—Kaixo Kolore, lortu al da zure desioa? Espero dut baietz. Orain, zin egin alai bizitzen saiatuko zarela, eta ez nauzula inoiz ahaztuko. Bakoitzak bere bidea jarraitu behar du, baina agian, noizbait ikusiko dugu elkar berriro. Laister arte!

—Bai, zin egiten dizut —esan zuen Kolorek malkoak masailetatik irristaka.

Handik aurrera, Kolorek bere bizitza ehuneko ehunean disfrutatu zuen. Izaten zituen egun txarrak bai, baina oztopoei aurre egiten zien. Hori egitera gonbidatzen zaitut, lagun!



Aroa Elortza

Bosgarren taldea

I. saria

Ipuina

Gauza txiki handiak

Balentinaga

Gauza txiki handiak

AINHOA, osteguna

Gaur goizean, ikastolan, poz-pozik hurbildu naiz lagunengana. Aste honetako aste-bururako plan bikain bat neraman pentsatuta, guztiok batera egiteko, kantu eta dantza aritzeko! Ikastolako patioan beti eseri ohi garen tokian zeuden Iker, Aintzane, Garazi eta Oihan. Aitonari agur-musu bat eman diot eta egun ona igarotzeko esan didanean alde egin dut korrika lagunengana.

Batzuetan, aitonarekin ikastolako ateraino joateak pixka bat lotsarazten nau; badirudi haur bat naizela oraindik horregatik, eskutik helduta zebra-bidea gurutzatzen duen horietakoa. Baina ez da hala, bakarrik joan ninteke ikastolara goizero, nire beste lagun batzuk egiten duten moduan; baina gurasoei ez zaie gustatzen. Badaezpada nahiago dutela ni aitonarekin bidaltzea esaten dute, eta beno, onartu egin behar, nahiz eta mutur luzez egon goizero aitona iritsi aurretik etxera. Hala ere, esan beharra dut aitona iristen denean beti hasten naizela barrez, tontakeriak besterik ez ditu esaten eta!

Gainera, goizero etortzen da zerbait ezberdinarekin: batzuetan Hawaiikoak diruditen loredun alkandorekin etortzen da eta tinbrea jotzean “alkondarieeee” egiten du oihu; beste batzuetan, barrua txokolatzet beteta duten kruasanak ekartzen dizkit gosaltzeko eta bion artean muturrak guztiz marroi jartzeraino jaten ditugu. Amari ez zaio txokolatea gustatzen, eta agian horregatik da, edo besterik gabe, osasungarriak ez direlako “txokolatzeko bihotza” duten kruasanak, aitona esaten duen moduan; kontua da, ekartzen dituen bakoitzean sekretupean mantentzeko eskatzen didala aitona. Biloba eta aitonaren arteko ituna izaten da, sinatu ere egin behar izaten dut gainera aitona bere letra kas-kar eta ulergaitzaz idazten duena sukaldeko paper mutur batean:

*Nik, Joxe Braulio Ipurdigizen Hankamehe-k, txokolatezko bihotza duten kruasan eta gainerako gozoen erreinuko gudari naizenak, gure herriko biztanle den Aohnia Iaragexte-ri erreinuko altxor preziatuenetariko bat oparitu diodala ziurtatzen dut. Horren adierazle izan bedi honako hitzarmena, eta ondorioren bat jasan behar dituen erantzularen bat ego-
nez gero, neroni izango naizela adierazten dut.*

Aohnia Iaragexte herritarrek aurreko guztia onartzen duenaren adierazle bere sinadura,

Aohnia Iaragexte

Horrela, sabela txokolatez beteta eta bihotza goxotasunez, ikastolara abiatu naiz gaur-koan ere, paper-muturra sinatu ostean, nire astebururako ideiak sortzen didan zirrarrare-kin tximeletak nabariz sabelean, txokolatearen alboan dantzan.

Hurbildu naiz lagunengana, irribarre alaiz. Ez dakit zehazki zertaz ari ziren hitz egi-ten, baina beraiegana gerturatzean isildu egin direla iruditu zait. Agian nire irudipena izan da, besterik gabe. Ez diot buelta gehiago eman, eta isilik zeudela aprobeixatuz, nire berri paregabea helarazi diet.

—Ez dakit badakizuen, baina asteburu honetako larunbatean Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ekitaldia egongo da kiroldegian. Nahi al duzue joan?

—Ainhoa, benetan ari al zara? 9 urterekin Pirritx, Porrotx eta Marimotots PAILAZO-EN antzerkia ikustera joan nahi duzu? —barreari ezin eutsiz Garazik.

—Bai, zergatik ez? Beraien abestiak asko gustatzen zaizkit, eta antzerkiak ikusten oso ongi pasatzen dut!

—Horiek umeentzako gauzak dira Ainhoa! Ez duzu usteko Lehen Hezkuntzako 3. mailan Pirritx, Porrotx eta Marimotots-ekin kantu eta dantzan aritzera joango garenik, ezta? —begirada ankerraz Ikerrek.

Lagunek esan dutena ikusirik, barre egitea erabaki dut eta kontuari buelta ematea.

—Nola joango gara bada? Noski ezetz! Brometan ari nintzen, ea antzezle ona naizen ziurtatzen, amak esaten baitit ez ditudala gezurrak ongi esaten, baina dirudienez bai! Bete betean sinetsi duzue eta!!

Eta horrela saiatu nintzen nire tristura ezkututzen; gezurretako irribarre baten azpian. Eta agian amak arrazoi du, gezurrak ez ditut oso ongi esaten baina badakit nola ezkutatu gauzak.

IKER, osteguna

Ezkutaketetan ari ginen etxean arreba eta biok ikastolatik itzultzean, bazkal aurretik. Amaren zain geunden, amatxo bazkaria egiten ari zen bitartean. Dirudienez paregabeko ezkutalekua aurkitu dut lorategiko loreak ureztatzeko eta zaintzeko erabiltzen diren gauzak gordetzeko armairuan; izan ere, arrebak ez nau aurkitzen. Izan liteke ezkutalekua ez izatea horren ona, baina arreba gazteagoa izanik, ez zuen pentsatu ere egingo hemen egon naitekeenik.

Aspertzen hasia nintzen jada bere zain, eta zaratak egitea erabaki dut. Hasieran uluka hasi naiz, gure etxe alboko basoan bizi den hontz zuriak egiten duen antzera. Ez dit entzun, eta katua imitatzea erabaki dut, ea oraingoan entzuten didan.

Ama iritsi dela entzun dut bat-batean, etxeko atearen kolpea entzun baita. Orduan nire arreba Lierni garrasika hasi zaio amari, eta tapa-tapaka genbiltzala guztiz ahaztu zaiola esango nuke.

Une horretan, armairutik irtetea erabaki dut. Irtetean, gure lorategiari begira dagoen leiho batetik hiru buru ikusi ditut, zerbait oihuka. Orduan konturatu naiz ikastolako azken mailako hiru mutiko zirela.

—Zu ere zure amak bezala hasi al zara jada, Iker? Horrelako gazte eta armairutik irteten? —Txominek beti du lehen hitza.

—Argi zegoen hori umetatik Txomin, ez dago horrelako galderarik egin beharrik! —Txomini erantzun dio Martinek—. Bi ama izanik, nola gustatuko zaizkio ba Ikerri neskak? Nahikoa neska ditu etxean, horregatik mutilak gustatzen zaizkio!

—Eta gainera afrikarra da bere ametako bat! Ikusi al da aurrez inoiz mutilak gustuko dituen beltzik? Beltx-landian horrelakoak ez dira onartzen! Sutan erretzen dituzte zu bezalakoak! —eta azkena hitz egiten, Mikel.

Zur eta lur gelditu naiz. Banekien nortzuk ziren Martin, Txomin eta Mikel; nork ez

ditu ezagutzen? Ikastolako azken mailako 3 harroputzak, “los tres mosqueteros” izenarekin ere ezagunak, zein baino zein baboagoa.

Entzuna nuen orain arte jendeari burla egitea gustatzen zaiela, baina ez nekien gazte-agoei ere egiten zietenik! Are gehiago, ez nekien nire izena ere bazekitenik. Baina dirudienez bai, eta nire bizitzaren inguruan ere zerbait badakite.

Isilik gelditzea erabaki dut esan dutenari jaramonik egin gabe, askotan esan baitizkirate horrelako gauzak, eta aspertuta nago jada horrelakoei erantzuteaz. Amatxok eta amak beti esaten didate burla egiten didatenei jaramonik ez egiteko, inbidia dutelako izango dela, edo aspertuta daudelako eta orduan besteen inguruan barre egiten pasatzen dutela denbora.

Amak eta amatxok askotan kontatu izan digute arreba eta bioi familia guztietan ez daudela ama eta amatxo; batzuetan ama bakarrik dago, beste batzuetan aita eta ama, edo bi aita, edo aita bakarrik, edo harrera gurasoak, edo beste mila koloretako familia. Gainera, urrutikoa izan daiteke gurasoetako bat, edo hemengoa; mundukoa izan liteke, eta Martekoa ere bai, agian? Horretaz ez nago horren ziur. Baina toki askotakoak izan daitezke gurasoak.

Niri gure familia asko gustatzen zait: Miren izeneko ama dut eta Fatima izeneko amatxo. Miren Getariarra da, txakolina bezala eta Fatima, aldiz, oso urrutikoa, Afrikakoa! Haurra zela etorri zen amatxo Euskal Herrira, gerratik ihesi eta orduan ezagutu zuen ama Miren. Oso lagun onak egin ziren umetan eta zaharrago bihurtzean bi umetxo izatea erabaki zuten. Ni amatxo Fatimaren tripan hazi nintzen, txiki-txiki nintzenetik erditu ninduenara arte eta Lierni, aldiz, ama Mirenen barruan. Horregatik esaten digute batzuetan nik amatxoren antza dudala, bere azalaren antzeko kolorea dudalako, eta Liernik, berriz, amarena.

Nire pentsamenduetan murgilduta nengoen eta ez naiz jabetu harroputz horiek oraindik ni zirikatzen dabiltzala:

—Ez al diguzu erantzungo, Iker?

Zer erantzungo diet ba? Ez dakit ezta zer esan didaten!

—Zergatik ausartu zara armairutik irtetera gure aurrean? Ez zaizu gutariko norbait gustatuko, ezta?

Eta hobe ez banu ezer entzun izan, askotan hobe izaten baita ez entzunarena egitea, tontokeriei erantzuten aritzea baino.

—Ikusiko duzu bihar goizean ikastolan, jende guztiak gay nazkagarri bat zarela jakitean! —eta leihoari kristalak mugiarazteko adinako kolpea emanez, sartu dira hirurak etxe barrura.

Nazkatuta nago, egia esan, kontu hau guztiaz; beti berdin ari dira handi-mandi batzuk: guraso “normalak” izan ordez bi ama ditudala, ea nola egiten duten tiki-tiki nire amek, ez naizela nire gurasoen benetako semea aitarik ez dudalako... Aspergarria da horrenbestetan entzutea horrelako gauzak, gogaikarria zeharo.

Zergatik ez da normala bi ama izatea? Ez da jende gehienak duen familia-eredua, ados, baina hortik “normala” ez dela esatera tarte handia dago. Zer da normala izatea? Guztiok ezberdin berdinak gara, eta berdin ezberdinak, aldi berean.

Ainhoa horrenbeste maite dituen Pirritx, Porrotx eta Marimototsen abesti batek honela dio: “Ezberdina dut irria, ezberdina duzu negarra, tristeena litzateke berdinak izan beharra; ezberdina dut irria, ezberdina duzu negarra. Ezberdina dugu bidea, ezberdina dugulako traba, elkarri bidea emanez trebatuko gara; ezberdina dugu bidea, ezberdina dugulako traba. Ezberdina dugu lotsa, ezberdina dugu ikara, politena hori ez al da? Ezberdin berdinak gara! Ezberdina dugu lotsa, ezberdina dugu ikara; ezberdin berdinak gara”.

Eta horrek zoriontsu egiten nau, ezberdin berdina izateak. Nire ama eta amaxok egiten naute zoriontsu, eta Liernik, eta ni naizena izateak. Eta ez, ez nau lotsarazten bi emakume izateak nire gurasoak, beste edonorenak adinako onak direlako.

Orain pentsatzen jarri naizela, agian ez dugu horren ongi egin goizean ikastolara sartu aurretik Ainhoari iseka eginaz Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikustera joateko proposamena egitean. Ainhoa ezberdina da pailazoak gustatzen zaizkiolako, baina onartu beharra dut niri ere beraien abestiak asko gustatzen zaizkidala, eta agian, neu ere ezberdin berdina naiz Ainhoarekiko.

Bihar goizean berarekin batera emanaldia ikustera joango naizela esango diot, oraindik joan nahi izaten jarraitzen badu, behintzat.

GARAZI, osteguna

Bazkalosteko klaseetan askotxo aspertu naiz. Plastika izan dugu lehen orduan, eta matematika bigarrenean. Nori bururatzen zaio ostegun batean azken orduan, arratsaldeko lauretatik bostetara matematikako klasea jartzea? Agian estrategia ona da kenketak egiten ikasteko, eta gainera denborarekin, hori bai buruhaustea! $17:00-16:11 = 49$ minutu gelditzen dira klasea amaitzeko.

Ez dakit zehazki zeri buruz aritu den irakaslea azkeneko hamar minutuetan, ez baitiot jaramon askorik egin, arratsaldeko ekintzetan pentsatzen bainengoen. Lehenbizi igeriketara joan beharra dut, bidean nahiko presaka bokata janda, 17:30ean hasten bainaz kiroldegiko igerilekuan igeriketa ikastaroarekin; ea gaur ez didan bareak heltzen, askotan gertatzen zait eta, presaka bokata jan eta jarraian ariketa fisikoa egiten hastea-gatik!

Igeriketa amaitzean, ingeleseko klaseak izaten ditut batzuetan, baina gaur osteguna da, ezta? Orduan gaur ez, hori asteazken edo Wednesday-tan izaten da.

Gauza asko ikasten ditugu ingelesean, eta gainera, oso jatorra da gure irakaslea. Aberdeen edo antzeko izenen bat duen Eskoziako hiri batetik etorritako emakume alaia da Katie (Keiti ahoskatzen da, nahiz eta beste modu batean idatzi) eta beti Scottish shortbread-ak ematen dizkigu, hau da, gurinezko gailetak. Etxe guztietan hariak eta jostorratzak gordetzeko dauden metalezko kaxa urdin horietan egoten diren gailetak? Ba, horien oso antzekoak omen dira zaporez shortbread-ak.

Ez dakit zehazki zein osagai daramatzaten, baina Mirenek ezin ditu jan, zelaikoa delako. Horregatik, beste gauza batzuk ekartzen dizkio Katie-k, goxo goxoak guztiak!

Askotan pentsatu izan dut ez litzaidakeela Miren izatea gustatuko, gauza asko ezin dituelako jan eta beti aritu behar duelako edozeri osagaiak begira, ea glutenik duen jakiteko. Ez dakit zer den zehazki glutena, baina min handia egiten omen dio tripan, janez gero.

Oraindik ez dago gaixotasunarentzako sendagairik, baina jende askok duen gaixotasuna da dirudienez, Oihanen lehengusu bat ere zelaikoa baita. Hala ere, orain pentsatzen jarri naizela, ez dakit zelaikoa den gaixotasunaren izena, horrek zelaia hitzaren

antz handia baitu. Uste dut erratua egon naizela beti eta zeliako dela.

Beno, horrek ez du garrantzi handirik; kontua da, gaixorik dagoela eta ez dagoela sendagairik horretarako, ez pilularik, ezta sorginen sendabelar edota edabe magikorik ere. Horregatik, handitzen naizenean zientzialari izatea erabaki nuen aspaldi, oraindik sendaezinak diren gaixotasunak sendatzeko.

Askotan helduek handitan zer izan nahi dudan galdetzen didatenean eta nik horren ziur zientzialaria esaten dudanean, harritu egiten dira. Gainera, petral batzuek hori ez dela neskentzako mundua esaten didate, hobe dudala ile-apaintzailea edota erizaina izan. Erizaina izanik, jende gaixoa lagun dezakedala esaten dute, eta horrekin nik nahi dudana egiten dudala. Baina ez da hala, inondik inora gainera!

Nik egin nahi dudana laborategian betaurrekoak jantzi, bata zuria kolorez zikindu eta pilula magiko bat asmatzea da, gaixotasun guztiekin amaituko duena. Gaixotasun asko daude munduan, asko oso ezezagunak direnak gainera.

Noizbait aitatxok kontatu zidan bere lankide baten alabak, nire adin ingurukoa denak, minbizia jasan zuela haurra zenean, baina gaingitu zuela. Nik orduan ez nekien zer zen minbizia, baina min handia ematen duen zerbait izan behar zela bai ala bai izena entzuteaz bat ulertu nuen; min-bizia, ezinbestean eman behar du mina. Eta orduan pixka bat triste jarri nintzen.

Zergatik gaixotzen dira haur batzuk? Zerbait txarra egin al dute? Nik uste ezetz, ez dela posible 5 urteko ume batek ezer txarra egiterik; ez behintzat horrelako gaixotasun latz bat jasatera iristeko adinako zerbait txarra.

Egia da txikitan guztiok esaten ditugula gezurtxoak, baina ez dut uste horrenbestekarako direnik, eta ez nuke esango gezur horiengatik norbait minbiziarekin edo beste edozein gaixotasunekin zigortu behar denik.

Batzuetan nik gauzak egiten nituen gaizki, ahizpa txikia jo, adibidez, eta horregatik zigortzen ninduten gurasoek, baina ez zidaten gaixotasunik sartzen gorputzean; eta eskerrak! Ahoa eta mihia xaboiarekin garbitu bai, hori bai egin zidaten, eta egiten didate oraindik ere, batzuetan, hitz itsusiak eta esan behar ez direnak erabiltzekatik; edo litxarrerria dendara joateko dirurik gabe utzi ahizpari atximurka egiteagatik, adibidez.

Zigorrak izaten ziren —beno, dira—, baina ez oso txarrak, jasateko modukoak behintzat. Baina munduak, edo munduan boterea duen norbaitek, ume koitadu batzuk zigortzen ditu, inongo kalterik edo minik egin ez dutenean. Eta minbizia, zeliakoa eta beste gaixotasun asko ematen dizkie haur horiei. Nagusiei ere bai, baina nagusiak gaixo daudenean ez ditut horrenbeste ikusten, ohean sartuta egoten direlako, edo oso ongi ezkutatzen dutelako gaixorik daudela eta orduan ez naiz jabetzen.

Baina haurrak gaixorik daudenean asko nabaritzen zaie, beno, zaigu; ni ere gaixotzen naizenean asko igartzen da gaixorik nagoela. Triste jartzen gara, eta irribarre egitea asko kostatzen zaigu, pisatu egiten dute ezpaineak, zama handia dute gaineen. Pentsa, niri tripako minak irribarre egiteko eta jolasteko gogoa kentzen dizkit! Bada, pentsa zer egingo duen min bizi horrek.

Aitak esan zidan minbiziarekin bere lankide horren alabari ilea erori zitzaiola. Beti eramaten zituen bi motots ile hori, edo bestela txirikordak. Baina, egun batetik bestera, minbizia sendatzeko botikaren ondorioz, ilea desagertzen hasi omen zitzaion, eta ileorde bat erabiltzen hasi behar izan zuen.

Nik ez dut ezagutzen neskabila hori, baina nire burua ilerik gabe imajinatzen dut, eta negargura sartzen zait. Gainera, hasieran ez nuen ulertzen ongi nola edo zergatik galtzen zen ilea, baina aitaxok azaldu zidan.

Dirudienez, kimio izeneko gauza bat jan behar dute haurrek ospitalean. Beno, ez dakit jan egiten den edo ez, hori ez zitzaidan oso argi gelditu; baina kontua da, kimio horrek minbizia gelditzen duela eta horrela sendatzen direla haurrak. Kimio horrek gure gorputzean dauden zelulak hiltzen dituela uste dut; eta zer diren zelula horiek ere ez dut oso ongi oroitzen, baina oso oker ez banago eta nire memoriak oraindik ondo funtzionatzen badu —eta ez badago nire amonarena bezalako txolinduta, batzuetan nire amaren izenez deitzen nau eta—, gure gorputza osatzen duten zati txikiak dira, puzzle bat izango bailiran.

Puzzlearen pieza txiki guztiak ezinbestekoak dira puzzlea amaitzeko, gure gorputza osatzeko, alegia; horregatik, oso garrantzitsua da pieza guztiak izatea eta ongi lotuta egotea denak, eta ez pieza bat edozein tokitan, egokitzen ez den lekuan.

Baina, minbizian, zelulak ez daude ongi funtzionatzen. Zelula horiek hazi egiten omen dira, gu hazten garen bezala. Min-bizirik dagoen umean zelula horiek indartsue-

giak dira eta asko asko asko hazten dira, behar baino askoz gehiago. Aitatzok hori esan zidanean nik pentsatu nuen umeak erraldoiak egiten zirela horregatik, beraien puzzleko piezak handiegi bilakatzen zirelako hazi eta hazi aritzeagatik; baina dirudienez ez da hala.

Zelulak asko hazten dira, baina haurrak ez; beraiek ni bezalakoak izan daitezke altueran, edo handiagoak, edo txikiagoak, baina ez du zerikusirik gaixorik dagoen haurraren garaierak puzzlearen piezekin.

Kontua da piezak asko zatitzen direla, baina piezak gaizki daude eginda, apurtuta daude. Berez, gaixorik ez gauden haurron kasuan —eta helduen ere bai, uste dut— piezak ongi daude, zelula horiek —nik animalia txikitxo batzuk moduan imajinatzen ditut, baina ez dakit benetan nolakoak diren, oso txikiak direlako eta ez direlako ikusten— hazi eta zatitu egiten dira, minbiziko zelulak bezala. Ezberdintasuna da gorputz osasuntsuetan zelulak badakitela noiz utzi hazteari; hori egitean, hil egiten dira, eta ez dira gehiago zatitzen, hil egin direlako, noski! Minbizia duten gaixoez, ordea, zelulak kalte-tuta dituzte, puzzleko piezei pusketatxoak faltako balitzaizkie bezala. Horregatik, ez dakite noiz utzi hazteari, eta etengabe daude zatitzen, eta ez dira hiltzen.

Hor aritzen dira zelulak zatitu eta zatitu, eta hazi eta hazi; horregatik sortzen da minbizia, lan gehiegi egiten dutelako zelulek.

Hara, aita! Batzuetan esaten didazu alfer huts bat naizela! Bada begira, batzuetan lan gehiegi egitea ere ez dela ona dirudi.

Eta uste dut hori izan zela aitatzok azaldu zidan guztia. Orduan, minbizia eta zeliakoa sendatzeko pilula bat egin nahi nuela esan nion, baina erantzun zidan hori oso zaila dela eta asko ikasi behar dela horretarako.

Handitzen naizenean hori egingo dut nik! Amantal zuri bat jantziko dut eta zelulak konponduko ditut ez zatitzeko gehiegi; horrela, ni adinako alfer bilakatuko ditut eta minbizia geldituko da, eta gaixotasuna akabo!

Ez dakit zeren zain dauden heldu hauek; nik horrelako burutapen bat izan badut, zergatik helduei ez zaie oraindik horrelakorik bururatu?

Inork ez badu horrelakorik egiten, handitzen naizenean hori egingo dut nik: nire ametsa egia bihurtuko dut, eta zientzialari izango naiz, gaixotasun guztiekin amaituz!

Batzuetan haurrok gauza asko ez dakizkigula esaten dute, eta hori handitzen garenean ulertuko dugula. Ez dakit zergatik esaten duten hori, baina beraiek gugandik ere badute zer ikasi!

OIHAN, osteguna

Bakarrik afaldu behar izan dut gaur. Afaltzen hasi da aita nirekin batera, baina ondoren lanera joan behar izan du eta bakar bakarrik gelditu naiz.

Eta zuk, agian, pentsatuko duzu: nola geldituko da 9 urteko mutiko bat bera bakarrik afaltzen? Nik ere hori esaten nion aitari hasieran, baina ohitu egiten da bat horretara. Galdera hori egitean, aitak beti erantzuten zidan ez geneukala beste aukerarik, berak ezinbestean lanera joan behar zuela, eta nik bakarrik afaltzen amaitu. Amatzok etxetik alde egin zuenetik, biok bakarrik bizi izan gara, eta batzuetan, egoera berrietara moldatu eta ohitu beharra dagoela ikasi dut.

Bakarrik lo egiteak beldurra ematen didanez, bizilaguna etortzen zaigu etxera, eta bertan egoten da aita lanetik itzuli arte. Bizilagunak Joxefina du izena eta ipurdi potoloa du. Alarguna dela esaten du aitak; nik hasieran ez nuen ulertzen zer zen hori, baina behin bere senarrarengatik galdetu nionean erantzun zidanarekin ulertu nuen zer zen. Bere senarra aspaldi hil omen zen, eta horregatik da alarguna, ez duelako senarrik orain, baina garai batean izan zuelako.

Gustuko dut Joxefina, Castillan bizi den nire abuelaren antza hartzen diot: beti irribarez, beti goxo. Gainera, lotaratu aurretik ipuinak kontatzen dizkit; denetariakoak: heren-suge eta piztienak, iratxoenak, animalienak, munduko pertsona makur eta zitalenak, Asiakoak edota Euskal Herrikoak.

Askok daki gure bizilagun Joxefinak, eta asko erakusten dit. Batzuetan, afal ostean, oso nekatuta ez nagoenean, mundua aldatzeko gauza txiki asko egiten ditugu, berak deitzen dion moduan. Mundua aldatzeko gauza txiki asko zerrenda luzea da: egun batean, atariko eskailerak eta kristalak garbitu genituen, garbitzaileari lana gutxitzeko; beste gau batean, aldiz, ehunka kroketa frijitu genituen auzoko jaiak ospatzeko eta guztiei emateko, bai kalearen goiko aldean bizi direnei, bai gure alboko etxean bizi den familiari ere.

Aitak etxetik alde egiten duenean lanera joateko, pixka bat triste jartzen naiz; izan ere,

bakarrik gelditzen naiz afaltzen, eta ezin dut txokolatezko muxu goxorik jaso postrean. Baina, platerak ontzi-garbigailuan sartzen nabilenean beti sartzen da Joxefina etxeko atea gurutzatuz abesti alairen batekin, nire pena guztiak uxatuz soilik irri batekin.

Gaur ere horixe egin du; gaurkoan kalian gora, kalian behera sartu da kantari, eskuekin zezenaren keinua eginez eta ni beso artean harrapatuz sukaldean sartzeaz bat. Muxu goxo bat eman dit, marrubizkoa; Joxefinaren muxuak beti dira marrubizkoak, ezpain gorri-gorriak baititu beti, ezpainetakoarekin margotuta. Hala ere, berak porru-patatazkoak direla esaten du, badakielako ez zaizkidala gustatzen, eta ni zirikatzeke.

Ez dira aita txoren txokolatezko muxuak adinako goxoak, baina postre gisa balio dute marrubizkoek ere.

Abentura bat abiatzen da Joxefina gurean sartzearekin batera. Ez dut inoiz jakiten zerekin harrituko nauen egun bakoitzean. Gaurkoan, asko harritu naiz, agian inoiz baino gehiago; gaurkoan, mundua aldatzeko gauza txiki asko zerrenda luzatzeko egingo duguna inoiz egin ez dugun zerbait da: kalera joango gara gau ilunean eta izarrak ikusiko ditugu.

Ez dakit egia esan nola nahi duen Joxefinak horrekin mundua aldatu, izarrek leku berean jarraituko baitute gu begira egon edo ez, eta ez dut uste, gainera, bere asmoa izarrek leku-aldatzea denik; edo oso arraroa izango litzateke, behintzat, hala balitz.

Zapatak jantzi, bufanda eta eskularruak soinean jarri eta negu hotzeko haize-boladari aurre egiteko prestatu gara.

—Hotz asko egiten du gaur Joxefina!

—Hotz handia esaten da Oihan, eta ez asko.

—Zergatik? Nik ez dut imajinatzen hotz bat erraldoia eta beste bat oso txikia

—Arrazoi duzu, bai, baina horrela esaten da. Bota aldaketa egiteko proposamena Euskaltzaindiari eta ea zer erantzuten dizuten

—Euskalzerrrr???

—Euskaltzaindia. Euskal hizkuntzaz arduratzen den erakunde ofiziala da

—Eta zer egiten du horrek? Euskara asmatu?

—Asmatu baino euskara erabiltzen dugunon artean ikerlanak egiten dituzte, euskara babesteko, arauak sortzeko eta horrelako kontuak.

—Aaaa!, Agian ni handitan ere horretan sartuko naiz.

Batzuetan ahaztu egiten zaio Joxefinari oraindik 9 urte besterik ez ditudala, eta berba potolo asko erabiltzen ditu, gaurkoan bezala. Nik uste ez dela oroitzen gauza asko ikas-teke ditudala oraindik, eta beste asko ikasteko.

Horregatik gustatzen zait berarekin egotea, beste arrazoi askoren artean, asko ikasten dudalako.

Hotz handia egiten du negu-gauetan herrian, eta ez hotz asko. Baina bihotza beti darama bero Joxefinarekin dagoen edozeinek; hori badakigu gure auzoko bizilagun guz-tiok, oso jatorra eta adeitsua delako gure amona Joxefina.

Amona Joxefina deitzen diogu, baina ez du bilobarik Joxefinak, eta agian horregatik zaintzen gaitu auzoko haur guztiak bere bilobak izango bagina bezala; baina ni bereziki, gauero gure etxean egiten duelako lo, abentura bat bizi ostean.

Gaurko abentura hotza izan da, baina beroa aldi berean; gaurko abenturan iluna gai-lentzen zen zeruan, baina argia gure begiradetan. Ez nuen hala izaterik espero, baina esperientzia polita izan da, bihotzak eztanda egingo dizula sentitzen duzun horietakoa.

Kalera buelta bat ematera gindoazela esan didanean Joxefinak, ez nuen uste motxila erraldi bat hartu eta bertan Joxefinak aurrez prestatutako janaria eramango genuenik, ezta manta eta beroki zaharrik; baina, halaxe egin dugu.

Herriko kanpoalderen dauden auzoetara joan gara, eta nik hasieran beldur pixka bat sentitu dudala aitortu behar dudan arren, segituan sentitu naiz etxean ezezagun artean.

Joxefinak etxerik ez dituen gazte eta zahar guztiak ezagutzen ditu, aitona-amona eta haur guztiak. Eta horiengana joan gara gaurkoan. Guztiei, edo ahal genuen guztiei, behintzat, manta edo beroki bat eskaini diegu, eta zopa beroa, barrua berotzeko apur bat, bihotza berotzeaz Joxefina bera arduratzen baita bere pasadizoak kontatuz. Eta nik ere ahal dudana egin dut ni baino zorte gutxiago duten horiei laguntzeko; ikastolan egiten ditugunak kontatu dizkiet, dantza eta abestu ere egin dut haur batzuekin eta harrapake-tan ere aritu gara.

Eta beranduegi egin aurretik, etxera itzuli gara eskutik helduta Joxefina eta biok, motxila hustuta baina barrena beteta.

Polita izan da jende hori guztia ezagutzea, eta lagun berriak egitea. Aitatzok esaten

duen moduan, norbaiten etxean sartzean, ezezaguna bazinen ere hasieran, irteterako laguna zara. Horregatik, euren etxeko atea zabaldu didatenez gaur gauean pertsona horiek guztiek, lagun askoz gehiago izango ditut aurrerantzean; nahiz eta benetan aterik ez izan beraien etxeak, kalean lo egin behar dutelako, kartoiz eta egunkari zaharrez egin-dako txokoak eskaini dizkigute eta goxo sentitu naiz, etxe bat izango balitz bezala.

Agian pentsatuko duzu hori ez dela haur batentzako tokia, eta ez direla orduak kalean egoteko, gau ilunean, baina niri ongi iruditzen zait, eta baita Joxefinari eta nire aitari ere; beraz, nahikoa dut horrekin. Txikia naiz oraindik, bai, baina gauza txiki askok mundu erraldoia alda dezakete, eta hori da garrantzitsua.

AINTZANE, ostirala

Gaurkoan ikastola sarreran ez gara betiko bostak egon. Betiko bostak Iker, Ainhoa, Oihan, Garazi, eta ni, Aintzane, gara. Baina gaur Ainhoa ez da etorri; igual haserre dago gurekin atzo esan genionarengatik? Pirritx, Porrotx eta Marimotots asko gustatzen zaizkio, eta guk barre egin genion horregatik. Brometan zebilela esan zuen amaieran, ez zuela benetan joaterik nahi, antzerkia praktikatzen zebilela, baina ez dakit benetan egia ote zen edo bere burua salbatzeko esan zuen.

Goiz guztian zehar asko egon naiz pentsatzen atzo Ainhoari esan genizkion kontuen gainean, eta agian ez genuela oso ongi egin jabetu naiz, pixka bat pasa baikin. Bakoitzak bere gustuak ditu, eta errespetatu beharra dagoela erakutsi didate beti etxean. Niri, adibidez, txokolata ez zait gustatzen, jende gehienak asko maite duen arren.

Gainera, ez da etorri Ainhoa ikastolara goizean, ezta arratsaldean ere, eta horrek asko arduratu nau, arraroa baita ostiral batean ez etortzea ikastolara; ostiralak asko gustatzen zaizkigu eta guztioi. Bostak laurden gutxiagotan ostirala iritsi da, iritsi da ostirala, pozez betetako eguna, zatoz gurekin laguna! abesten dugu gure mailako guztiok amantalak motxilan sartzen ditugun bitartean etxera eramateko eta asteburuan garbitzeko, zikin-zikin egoten baitira beti, mila kolorez jantzita.

Patoria jaitsi garenean guztiok, Ikerren amatxo nire aitarekin hizketan zegoen, eta bere ama nire amarekin. Ikerrek amatxo eta ama ditu, a zer zortea duen! Biak super jatorrak dira eta beti ematen dizkigute gozokiak ostiraletan, bost lagunoi, Afrikako gozoki

tipikoak, Ikerren amatxok egiten dituenak.

Gaur 5 gozoki banatu beharrean lau banatu ditu Ikerren amatxok, Ainhoa ez zegoe-lako. Guraso guztiak hurbildu dira une horretan, normalean egiten ez dutena. Pixka bat harritu gara, baina ez diogu aparteko garrantzirik eman, eta hizketan jarraitu ostean, jolasteko garaia zela adostu dugu begirada hutsez.

Arineketan abiatzekotan nengoen futbol-zelaira eta gainerako guztiak atzetik etortze-koak ziren, baina gurasoek ez joateko esan digute, gauza bat esan behar zigutela.

Beldurtu egin naiz, gauza bat horrek errieta egin behar zigutela ematen baitzuen. Baina ez da hala izan.

Guztiok borobilean jarri gara eta Garaziren aitak hitz egin du. Oso jakintsua da Garaziren aita, asko irakatsi dio behintzat Garaziri gaixotasunen inguruan, eta Garazik guri ondoren, zer den minbizia, adibidez.

—Nabarituko zenuten bezala, Ainhoa gaur ez da etorri ikastolara. Kontua da ezbehar bat gertatu dela bere familian, eta horregatik ez da etorri.

—Zer gertatu zaio, aita? —galdetu dio Garazik jakin nahian.

—Oroitzen al zarete nola duela pare bat urte ikastolan sugandila bat zaindu zenuten?

—Bai, Sugandila Pilpila zuen izena —esan du Oihane.

—Hori da, eta aurreko urtean hil egin zen —gaineratu dut nik.

—Horixe bera. Eta guztiok triste egon zineten egun batzuetan horregatik, ezta? —gal-detu digu Garaziren aitak.

—Bai, norbait hiltzean triste egotea ohikoa delako.

—Bada, hori da Ainhoari gertatu zaiona. Gaur goizean bere aitona hil da, eta horre-gatik ikastolara ez etortzea erabaki du, gurasoekin egoteko eta guztiak batera egiteko negar edo barre, nahi izanez gero, bere aitonaren kontuak oroitzuz. Izan ere, batzuetan negargura sartzen zaigu norbaitek betiko alde egiten duenean; beste batzuetan, ordea, tartetxo batez triste egon ostean, irribarrez oroitzen dugu joan den hori.

Nik bi aitona eta bi amona ditut, eta inoiz ez zait inguruko inor hil, Sugandila Pilpila soilik. Hasieran triste egon nintzen, baina egun pare batera pasa zitzaidan tristura, eta pozik kontatzen nizkion nire neba txikiari sugandilarekin bizitako abentura eta desben-turak: nola utzi genuen irakaslearen mahai-gaiean eta sekulako sustoa hartu zuen mate-

matiketako irakasleak, edo nola moztu zuen buztana gure maltzurkeriengandik ihesi eta berriz hazi zitzaion beste bat.

Baina badakit, nire aitona edo amonetako bat hilez gero oso triste egongo nintzatekeela, beti egon direlako ni zaintzen eta ni mimo handiz tratatzen. Eta berriz ikusiko ez ditudala pentsatzen jartzean... ai, estutasuna sortzen zait sabelean, eta bihotzean. Eta tristura, tristura handia.

Horregatik, eta batez ere, Ainhoa alaitzeko, berak benetan gustuko duen gauza bat egiteko proposamena otu zait:

—Aizue, eta zergatik ez gara bost lagunok batera bihar Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikustera joaten, Ainhoak nahi zuen bezala? Egin dezakegu, ama?

—Niri ideia bikaina iruditzen zait Aintzane; gainera, horrela, Ainhoa pozik egongo da tartetxo batez. Baina berak nahiago izango balu ez joatea, bere iritzia errespetatu eta ulertu beharko duzue

—Zein burutapen ona Aintzane! Aita, deitu Ainhoaren gurasoei eta galdetu ea etorri nahi duen, mesedez —eskatu dio Oihanek aitari.

Oihanean aitzak Ainhoaren amarekin hitz egin ostean, biharko ekitaldia ikusteko sarre-rak hartu ditugu eta guztiok elkartzean besarkada estu bat emango diogula elkarri zin egin dugu.

BOSKOTEA BIHARAMUNEAN

Oso urrun ikusten da dena hemen goitik, baina zin egindako besarkada hori eman diote Ainhoari bere lau lagunak. Estu eta gogoz estutu dute elkar. Eta pozik egin dute irri eta dantza ondoren elkarrekin pailazoen ekitaldian, “kantatzen ez duenak zorionik ez du” eta.

Dantzatzen eta kantatzen duen herria ez da inoiz hilko, eta horregatik neu ere ez naiz hilko inoiz, agian; nahiz eta nire gorputzak jada mugitzeari utzi dion, beti egongo naiz bizirik nire biloba Ainhoa eta bere lagunak bihotzetan, baita nire erreinuko txokolate bihotza duten kruasanak ere beraien sabeletan.

Muxu eta besarkadek minak sendatzen dituzte, edo pixka bat arindu, behintzat.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek emandako txoko-marrubizko muxu goxoek adina sendatuko dute Ainhoa bere lagunak emandako mimo eta laztanek; izan ere, goxoagoak dira pozak eta tristurak lagunekin elkar banatzen direnean.

Eta gogoratu, urteak betetzea baino garrantzitsuagoa da abenturak bizitzea! Beraz, hartu amets bat eskutan eta segi bere atzetik; bilakatu zientzialari, musukatu neska zein mutil, lagundu gehien behar duena, edo joan izar galduen bila. Baina bereziki, bizi, eta egin irri!

“Utziko didazu izaten bidelagun? Ezberdinak izaten biok ikasi dezagun” Denok ezberdin berdinak eta berdin ezberdinak garelako, aldi berean.

Berdin ezberdin guzti horientzat.



Itziar Olaizola

Bosgarren taldea

II. saria

Ipuina

Afaria

Balentinaga

Afaria

Gazta minduaren kiratsa sudur zuloetatik barrenerraino sartzen zaidan bitartean, Ireneren aurpegia estali didate izeba Ixabelen galtzarbeko txima punkiek. Ondorengo segundoak luze joan zaizkit, kukuka, izebaren beso-zuztarren gainetik eta azpitik, Ireneren begirada berreskuratu dudan arte. Baratzuri-zopa lapikoa mahai gainean utzi ondoren, mindutako gazta usaina aldendu eta Chanelen Paris Venise garaitu da Irene eta bion artean.

—Maahaaairaaaaa! —marru egin du izebak, eta falta zirenak beren lekua hartu dute. Mahaikada bete lagun gaude aurten ere. Antzinako ohiturari jarraituz, zaharrena mahaiburuan jarri da: aurten izebak hartu du aitona zenaren lekukoa; bere ezkerrean etxeko mutil-zaharra eseri da, osaba Manueltxo; haren ondoan, berriz, hirugarrena, Loiolako Gogartetxetik etorri berri den osaba Gregorio; eta anai-arrebetan gazteena, gure aita Pedro, jesuitaren ezkerrean jarri da; ondoan gure ama, eta bere segidan ni eta nire bikotekidea eseri gara, hurrenez hurren. Ireneren ondoan nire arreba Nahikari, bere senarrarekin.

Inguruko paretetako paperak belztuta dituzten bonbilla apalek argizatzen dute jangela, eta tximiniako suaren dantzak giroa goxatzen du. Amonaren jaiegunetako zapi zuriarekin jantzita dago pipiak jandako mahai zaharra. Gainean XX. mende hasierako plater, edalontzi eta kopak, gehienak ertzak kraskatuta. Ez da ezer ere botatzen Xoxolatzen. Ezta karratu gorri eta txuridun gortina zaharrak ere.

Inor baratzuri-zopari koilara sartzen hasi aurretik, osaba Gregorio bere lekutik altxatu da.

—Otorduarekin hasi aurretik, mahaia bedeinkatzea da etxe honetako lege zaharra... —hasi da, besoak zabaldu eta gora begira—. Bedeinkatua izan zaitez, Jauna, mahai honetan elkartu gaituzulako. Eta eskerrak orain elkarbanatuko dugun janari hau ekartzeagatik. Amen.

—Hi hor eta ni hemen! —entzun da bat-batean urrunetik, eta mahaikide guztiek sukalde aldera begiratu dute—. Zer uste du berorrek, inork prestatu gabe mahaian azaltzen dela janaria? Hik, hik... sekula zartagi bat ere ez duk ukitu eta!

—Kar, kar, kar! —eskuarekin disimulatzen saiatu arren, osaba Manueltxok agerian utzi ditu

ahoko pianoaren tekla zuri-beltzak—. Axkeneko hoji, behintzat, ex dun gezuja! Kar, kar, kar!

Gregorio eseri egin da, etsita. Sotanan falta zaizkion zimurrak agertu zaizkio kopeta beltzean. Besteon ezpainenako irribarre deserosoak ezabatzeko, baratzuri-zopa banatzeari ekin dio amak. Klin eta klan, koilaren soinuek bakarrik hausten dute isiltasuna. Ondoren, berriz, berri-keten murmurioak hasi dira.

—Gure izeba hau ez dago burutik ondo... kar, kar, kar! —xuxurlatu diot Ireneri, tentsioa lasaitu nahian.

—Aitoor... ez al duzu ikusten? —erantzun dit berak.

Ez dakit zer esan nahi izan didan... Baina ez zait gustatu. Nire familiara ekarri dut eta... Ze borde, ezta? Burua biratu eta Nahikarirekin hizketan jarraitu du. Eta ni, aspertu egin naiz bere mototsari begira.

Bigarren plateraren txanda: garbantzuak. Berriz ere, gazta minduaren lamada Irene eta bion artean.

—Hau al duk hire lagun berria, Aitor?

—Bai... —erantzun diot, sudur zuloak blokeatuta.

—Bai, neu naiz... Pozten naiz zu ezagutzeaz. Dena oso goxoa, e?

—Igual zuenean mariskoa-edo jango duzue... hemen betikoa zaukanagu —esan du izebak.

—Ez, ez, benetan, dena oso ona dago... Laguntza behar baduzu esan, ados?

—Hi, edukatua duk hau, e... Ez utzi alde egiten! —esan dit, haragiz inguratutako ukondoa nire bizepsean sartzen duen bitartean.

Behartutako irribarrearekin erantzun diot. Jada etsiak hartzen hasia naiz eta oraindik plater nagusia ez dute ekarri: arkumea.

—Ñoooooooooooo! —entzun da sukaldetik. Eztarria libratzeko pare bat eztul gero. Eta atzetik hamar bat segundoko korrokada.

—Nora, Irene? —nire ondotik altxatu eta badoa. Eta ni atzetik, txakur txikia bezala—. Irene... Ire... Irene... lagunduko dizut?

—Ez, lasai, Aitor... —behartutako irribarra, oraingoan, berea izan da.

Berriz ere bueltan gatoz; Irene, labetik atera berri den arkumea erretiluan hartuta; eta ni, atzetik, ontzi bete letxugarekin.

—Ongi ari al zarete afaltzen, jaun txit gorenak? —sukaldetik gorputz erdia eta aurpegi

masail gorria atera du izeba Ixabelek. Esku batean egurrezko sardexka eta bestean basoerdia ikusten zaizkio.

—Mesedez, Ixabel... —esan dio Gregoriok— Beti berdin...

—Ez al duzu ikusten, Aitor... —xuxurlatu dit Irenek.

—Ikusi, zer? Ez dakit zertaz ari zaren... —zer sartu ote zaio gaur buruan.

—Ez al duk hau Kristoren odola? Kar, kar, kar! —jarraitu du izebak.

Edalontzia tragoan hustu eta besoa pasatu du ezpain bazterretatik.

—Kistojen odola, egia! —esan du etxeko mutil-zaharrak, arreba zaharrari lehen baino lainera handiagoa emanez—. Bejok badaki odola ajdo bihujtzen, Goio?

—Hori, hori! Ba al dakik? Kar, kar, kar! —esan du izebak—. Aaaaaaaaaaaaaa, ederki sartzen duk, eztarritik behera, prexko-prexkoa!

Dinbili-danbala mahaira gerturatu da izeba.

—Orain hau probatu behar diat ba... Non diat edalontzia...

Mahai gaineko Rioja hartu, eta botila muturra ahoan sartu du. Gero, amantalarakin garbitu du.

—Ederra ziok hau ere! Ñooooooooooooo!

Baxera bezala, hemen ez da ezer aldatzen.

—Nahikoa duzu, Ixabel... —esan dio gure aitak.

—Nahikoa? Periko, Gabonetan pare bat trago hartzea inork ez zidak galaraziko! —erantzun dio—. Mutur ederra duk ba heuk ere! Kabitu hadi hire galtzetan!

Osaba Manueltxoren pianoa ikusi dut, berriz ere. Gero, berriz ere klin eta klan, koilara eta sardexken soinua nagusitu da mahaiaren bueltan.

Edalontzia aurkitu du azkenean. Bete eta dinbili-danbala alde egin du izebak.

Aurtengoa, azkena. Hurrena ez naiz etorriko.

—Ixabel... lagunduko dizut... —esan eta sukaldera joan da Irene, izebaren atzetik.

Falta zena.

Oraingoan ez, aspertu naiz txakur txikiarena egiten. Zer ote du neska honek... Izeba kargatzen ari dela? Eta zer nahi du nik egitea...

Amantala jarrita, katilu handi bat eta beste txikiago batzuk dakartza eskuetan. Ez nuen uste hain azkar integratuko zenik familian.

Ardo orbanez zikindutako zapia altxatu eta sardexkatxoak atera ditut mahaiko tiradera-tik, eta bakoitzari bana eman diot. Polboroi eta mazapan bete plater hartuta dator Irene orain-goan.

Azkenburukoa: fruta-mazedonia, polboroi eta mazapanak.

—Norbaitek kaferik? —galdetu du.

—Bai, niri axukje axkokin —erantzun du etxeko mutil-zaharrak.

—Eskerrik asko... Esnearekin, mesedez —eskatu dio Gregoriok—. Zu bai emakume jatorra.

—Niri hutsa, ttanttarekin —eskatu dio aitak.

—Bat azukre askorekin, bestea esnearekin, bestea txurrustarekin... Beste inork? Edo koparik?

—Lasai, Irene... Nik prestatuko dut biontzat kubata bat... hozkailuan dut martinia.

—Ez, Aitor... Ez dut behar, eskerrik asko.

Horixe pentsatuta nuen gaur: ederki afaldu, eta kubatak nire kontu... Goizean jaiki eta preseski horixe erostera joan naiz supermerkatuara. Etorri garenean lehenengo gauza edariak hozkailuan sartzea egin dut. Kubatak mundialak ateratzen zaizkit, baina ez. Gaur ez da nire eguna. Gaur niri kontra egiteko eguna da. Urtea bukatzeko modu ederra: neu bakarrik edaten, arrebak eta bere senarrak ere ez omen dutela nahi eta.

Luzea bezain motza izan da gaurko afaria. Manueltxo ohera joan da hamaiketan, eta bes-teek hamabietarako alde egin dute. Irene eta bion artean jaso ditugu mahaiko soberakinak. Izeba besaulki kulunkarian eseri da, eta bigarren kulunkarako lo gelditu da, ezpain bazterretik lerdea zeriola. Egongo dira zurrunga txikiagoak egiten dituzten hartzak!

Azkenean, “biok” bakarrik.

—Orain zer, Ire...

—Ez dakit ba...

—Etxera?

—Horrela ez dugu ba utziko... bera bakarrik... Pena ematen dit...

Kostatu zait maindireak aurkitzea. Azkenean, “O-G” aitona-amonon inzialak zituzten batzuk aurkitu ditut armairuan. Mugimendu bakoitzean egur hotsa ateratzen duen aitona-amonon ohean gelditu gara Irene eta biok. Sukalde ondoko logelan, atea irekita, suaren argiak logelako paretetan dantzan, izebaren zurrungen musikarekin.



Eider Elorza

Bosgarren taldea
III. saria

Ipuina

Esan gabekoak

Bakantziaga

Esan gabekoak

00:17. Bere mihiak nirea laztandu zuen. Bazen garaia. Ezin nuen beste ezertan pentsatu, bere bular atletikoa nirearen kontra sentitzean baino ez. Ezpainetatik despegatu eta lepoaldera jo zuen; bitartean, ipurditik heldu zidan eta ni bere kamiseta altxatzen hasi nintzen.

Ez nuen sua itzaltzerik nahi, baina momentu batez, riñonerara gerturatu nintzen preserbatibo bat hartzera. Nire amarekin akordatu nintzen, horrenbeste aldiz esan baitzidan sexua babestuta praktikatzeko. Baina non zegoen nire burua? Nire amaz gogoratzten, Peru bezalako mutil puxka batekin larrua jotzeko puntuan nengoenen? AI AMA.

Buelta eman, eta Peruren galtzontziloak bere hanka sendoetatik beherantz zihoa-zela ikusi nuen. Nire bitxilorea berriz ere topera piztu zen eta segituan hasierako gertutasunera bueltatzeko beharra sentitu nuen. Bere ezpainak berriz dastatu bitartean, bere zakila kondoiarekin estali nuen eta Peruren begiek erakusten zuten berotasuna probatzera ausartu nintzen.

Bere gorputza paretaren kontra eraman nuen, eta nirea imana bezala berearekin itsatsita joan zen. Nire bularrekoa askatzen saiatu zen, baina ezinezkoa egin zitzaion. Barre egin nuen, bere aurpegian islatzen zen lotsa desagerraraztea lortzen nuen bitartean. Azkenean, bere zakila nire aluan sentitu nuen eta hor hasi zen tsunamiaren lehen olatua. Eta bigarrena, hirugarrena... baina oraindik handiena iritsi gabe. Nire titi-puntak miazkatu zituen eta nik bere kizkur txikietatik xuabe tiratzen nuen. Tabernako zaratarekin nahasten ziren gure intziri lausoak, baina beste mundu batera teletransportatu gi-

nela ematen zuen. Gora eta behera gindoazen, eta tsunamiko azken olatu potenteena zetorrela aurreikusten ari ginen. Bazetorren... eta badoa. Garrasirik ozenena, eta Peruren burua nire bularraren kontra izan zen sentitu nuen hurrengoa.

Minutu batzuk behar izan genituen guztia asimilatu eta lasaitzeko. Ondoren, azkar jantzi eta barre artean atera ginen tabernako komunitetik.

Peru bere kuadrillakoengana zihoan eta ni nire lagunekin elkartuko nintzen, baina ez berak ez nik ez genuen eman nahi agurtzeko pausoa. Ez genuen tsunami magiko hori desagerrarazterik nahi.

Azkenean, muxu azkar bat eman eta bakoitzak bere bidea hartu genuen, irribarre banarekin aurpegian.

—Ze Mari, zetan ibili za ba? —galdetu zidan Jonek ikusi bezain laster.

—Zer? Ezertan ez, lagun batekin berbetan.

Oso txarra nintzen disimulatzen eta berehala harrapatu ninduten gezurretan, ondo baino hobeto ezagutzen baininduten.

—Bua qué mentirosa! Urrinetik ikusten jatzu Marina, hasi zeinke egixa soltatzen.

—Bale, joder! Ba sinmas, Perukin elkartu naiz komuneko atian eta... bueno baki-zue, ez galdetu ezebe gehixau e? Kontaukotzuet beste egun batian, oin guazen zeoze hartzera, biharra badaukou eta —erantzun nien gaiz aldatzeko saiakeran.

Egia esan, behar urgentea geneukan. Bigarren Batxillergoko lehenengo azterketak ez ziren errazak izaten ari, eta guztiz ez itotzeko zirrikitu txiki baten bila abiatu ginen gau horretan, itxaropen handirik gabe.

Handik hona ibili ginen, berri handirik gabe. Ohiko buelta eman genuen, betiko taternetan tragoak eskatu, betiko jendearekin elkartu eta hitz egin. Perurekin ere gurutatu ginen pare bat aldiz eta ikusi bezain laster, irribarrea ezkutatzea ezinezkoa egin zitzaigun bioi. Ez dakit zein zen arrazoia, baina bai berak eta bai nik inoiz baino gehiago disfrutatu genuen sentsazioa neukan. Biok batera larrua jotzen genuen lehen aldia zen, baina inoiz baino bereziagoa. Pentsatze hutsarekin, tripa barruan tximeletak 'salsa' dantzan ari zirela ematen zuen.

—Marina, Marinita! Ze moduz gabitz? Enterau naiz gauza batzutaz e, Mari? —nire anaia zahar plastak galdetu zidan bere aurpegi eta ahots gogaikarri horrekin. Ezkerreko

bekaina igota, bere bi ezpainek elkarturik irribarre lauso bat sortzen zuten. Ez dakit zenbat kopa zituen gainean, baina adarra jotzeko gogoarekin zegoela argi eta garbi gelditu zen.

—Ze zabitz zu ba, Urko? Firin-farin ikusten zaitxut e... etxera heltzerakuan igoi-dazu kruasan bat bale? Ni gaur ez dot uste oso berandu jungo naizenik eta, ez dago ezebe interesantia —disimulatzen saiatu nintzen, eta nire lagunekin baino askoz hobeto atera zitzaidan.

Egia esan, ez zen nire gaurik onena izaten ari. Bai, Perurena sekulakoa izan zen, baina hortaz aparte, ezer berririk ez. Ez pentsa gertatutakoarengatik pozik ez nengoenik, inoiz baino zoriontsuago nengoen, baina nire gorputzak ez zidan berdina transmititzen.

Nire anaiaren lagunak buruaz agurtu eta hurrengo tabernarantz jo nuen, bertan aurkitzen baitziren nire kuadrillako lagunak. Azken tragoa hartuko nuen eta gero etxerantz abiatuko nintzen, deskantsatzeko beharra nuen eta. Sartzekotan nengoela, Leirek garrasi batekin deitu ninduen, aurpegi desesperantearekin bezala. Itxaroteko keinua egin zidan eskuarekin eta berarengana hurbildu nintzen, zerbait oker zegoela susmatu bainuen.

Leire nire kuadrillako neskarik alaiena zen. Edozein momentutan edozeini irribarre bat ateratzeko gaitasuna zeukan, eta ondo aprobetxatzen zuen. Festa guztietako erregina, jende guztiak ezagutzen zuen, zure inguruan zebilela segituan konturatzen baitzinen ateratzen zuen builarekin. Bere kizkur luze eta ilegorriak lau haizetara dantzan ibiltzen ziren beti, begi berdeek platerak bezain zabalik laguntzen ziotela uneoro.

Baina orain begiak goibel zituen, bekainak justu hauen gainean jausita zeudela. Ni-reak, aldiz, betosko itxura hartzen hasiak ziren, oso arraroa baitzen Leire bezalako emakume alai baten aurpegian hau islatzea.

—Leire! Ze pasatzen da? Ez zare ondo, ezta? —galdetu nion, arduratuta.

—Mari... —negar-malkotan zegoen, gaixoa. Ia ezin zuen hitz egin—. Ezin dot nere bizitziakin.

Nire besoetara bota zuen bere gorputza, eta justu-justu lortu genuen biok zutik mantentzea. Poliki-poliki, gertuen aurkitzen zen bankurantz zuzendu nintzen, Leire eta bere negar-zotin ozenak bidelagun nituela.

Ezin nuen Leire kontsolatu. Bere negarrak amaiezinak ziruditen eta ez nekien zer egin. Nire altzora bota zuen burua, etzanda egoteko postura hartuta eta nik bere ilea batu nuen koleta baxu batean. Orduan ikusi nituen bere bizkarrean agerian zituen zauri eta markak. Esku-markak ziren eta zonalde asko gorrituta zeuzkan. Bere tirantedun kamiseta pixka bat igo nuen eta gerrialdean ere ubelduriko zona batzuk bistaratu nituen. Ez nekien zer pentsatu, oso nahastuta nengoen, baina poliki-poliki nire barnean hipotesiak sortzen hasi ziren, bat bera ere ez nire gustukoak. Ez neukan ideiarik ere ez zer gertatu zitzaion, baina jakitun nintzen hori norbaitek egina zela, esku-markak eta hazten arrastadak ez ziren bakarrik egiten eta.

Banekien Leire mozkortu samartuta zihoala, baina ukaezina zen zerbait larria gertatu zitzaiola. Ezin nuen gehiago itxaron eta dena jakiteko egonezinez nengoen, baina Leirek oraindik hitzik gabe jarraitzen zuen eta ez zen nire asmoa neska gaixoa gehiago presionatzea.

Bere burua eta besoa laztantzen ari nintzela, lasaitzen ari zela sentitu nuen, eta nire berotasun eta gertutasun dena adierazten saiatu nintzen. Berriz ere bankuan esertzera pasa zen eta hitz-totelka ari zela konturatu nintzen. Berarengana gerturatu eta besar-kada bat eman nion. Mina eta beldurra sentitu nituen bere inguruan. Muxu bat eman nion masailan, baina barreanean zeraman zauria ixteko nahikoa ez zela konturatu nintzen. Hau baino jostorratz eta hari askoz sendoagoak beharko nituen.

•••••

Leire beso artean neukala, urrinera ikusten nuen Alazne. Bere kanpiñeko lagunekin hizketan ari zen. Iosu, gure herriko mutil morrosko bat, hasieratan beldurra ematen zuena baina, ezagutzean, ezia baino goxoagoa zena. Maider, neska pinpirina, ile bat bere lekutik kanpo zeukala inoiz harrapatuko ez zenuen horietako bat. Nahiz eta neska jatorra izan, nerabezaroaren eraginpean zegoen, bete-betea. Eta Kaiet, ondoko herriko mutil guapo eta jatorra, beti irribarre batekin agertzen zena. Oso mutil ona zirudien, nahiz eta inoiz ez nuen berarekin kointziditu eta ez nuen ezagutzen.

Alazne ere gure kuadrillakoa zen. Denetatik garaiena, gure adineko neska bat baino modelo bat ematen zuela esaten genion askotan, lan horretarako oraindik esterotipatuta dagoen gorputz “perfektua” ere bai baitzeukan. Ilehoria zen, eta ipurdi gainerainoko melena lisoa zeraman, beti ondo orraztua. Begi marroi argiak, sudur txatoa eta ezpain finak zituen, bere aurpegiko azal leunarekin lagunduta. Fisiko paregabea

zeukala entzutera ohituta zegoen eta horrek ez zuen modu egokian eragin bere iza-
eran. Kuadrillakoak nazkatzeaz gain, espekulaztea eta bere buruaz hitz egitea egu-
nerokoa bilakatu zen. Halere, bazuen barru-barruan bihotz ahul zati txikitxo bat, eta,
hau ateratzean, emakume maitagarri bat erakusten zuen, fazeta hori ezagutzerik
nahi ez izatea ezinezkoa egiten zena.

Bost minutu berari txistuka eta keinuka ibili ostean, azkenean gure aldera begi-
ratu zuen Alaznek. Eskuarekin, guregana gerturatzeko keinua egin nion, eta lagunak
agurtu bezain azkar gure bankurantz jo zuen. Blusa beltz bat zeraman, brillantina uki-
tuekin lagunduta. Praka zabal gris batzuk, belaunetan apurtutako zatiak zituela.
Converse zuriak oinetan eta gorputza gurutzatuz poltsa beltz bat, zilarrezko bolatxoak
apaingarri moduan zituela.

Oraindik ez genekien Leireri gertatutakoaren inguruko ezer, baina Alazneri la-
guntza eskatzea izan zen barrenetik atera zitzaidana. Bi izanda, seguruago sentitzen
nintzen, gauzarik gogorrena eta gordinena entzuteko ere hobeto prestatuta. Begiekin,
Leireren bizkarrera begiratzeko keinua egin nion Alazneri, baita berak begiratu ere.
Berriz ere burua altxatu zuenean, begiak zuloetatik atera behar zitzaizkiola ematen
zuen; bere ezpain delikatuek O txiki bat sortzen zuten eta esku bat bere kopetara joan
zitzaion, bestearekin Leireren besoa laztantzen zuen bitartean. Leire bere negar-zoti-
nak kontrolatzeko ahaleginak egiten ari zela konturatu nintzen, eta Alaznek, denbora
bat lurrera begira, ikusitakoa analizatzen balego bezala egon ondoren, nire aldera be-
giratu eta buruarekin ezetz egiten zidan behin eta berriz.

• • • • •

—Marina... Alazne... ezin dotsuet zuei putada hau in —esan zuen bat-batean Lei-
rek malko artean.

—Leire, ez izan tontia, kontau dana ya —esan zuen Alaznek, tonu agintzaile ba-
tekin. Ez nuen uste hau oso era egokia zela Leire hitz egitera animatzeko, baina uler-
tzekoa zen Alazne ere zeharo nahasturik egongo zela eta barrutik irtendako hitzak
izango zirela, mina egiteko inongo intentziorik gabe.

—Kaiet —esan zuen ia xuxurlatzen. Ozen negarrez hasi zen berriz eta burua nire
altzora bota zuen, desesperatuta.

Alazne segituan jaiki zen eta ezpainak estututa eta begiak amorruez beterik zituela,

ondoko tabernarantz jo zuen. Nik, hori ikustean, Leire bankuan negarrez utzi eta berarengana zuzendu nintzen, ez bainuen inork zirkua montatzerik nahi herriko kalerik jendetsuenean. Alazne lasaitzen saiatu nintzen, oraindik gertatutakoaren inguruko ezer ez zekiela esanaz. Kaietek zerbait txarra egin zuela garrasi eginez erantzuten zidan, eta berarengan zerbait arraroa sumatu zuela lehenago. Halako batean, biok eztabaidan ari ginela, Leirek deitu gintuen.

—Ez dago ezer itxeko, Alazne. Mina inda dago, asko gainera. Neri laguntzia besteik ez daukazue, zeoze itxia nahi badozue.

—Ba klaro lagunduko dogula, Lei. Berdin da ze pasau dan, argi euki bakarrik ez zaitxugula laga bihar —gehitu zuen Alaznek, bere fazeta lagunkoiena behingoaz agerian utziz.

Arnasa behin eta berriz sakon hartuz, Leire bere bizitzako gauzarik garrantzitsuenaren egitera zihoala ematen zuen. Agian, izango zen.



Ezin nuen sinestu. Leireren ahotik ateratakoa ezin zen egia izan.

Nahiz eta nire burutik horrelako pentsamenduak pasatzen hasi ziren, ez nuen uste Leire gezurretan ari zenik. Nire lagun minaren ahotik entzundako hitzak zalantzan jaretzea egingo nukeen azkena zen, baina ezin nuen ukatu sinesgaitza egiten zitzaidala.

Kaietek bortxatu egin zuela esan zigun.

Leireren negar malkoak nire sorbaldan sentitzen nituen, Alazneren arnas sakon eta ozenak ondoan nituela. Niri bihotz zati txiki bat kendu bazidaten bezala sentiarazi ninduen berri honek, Alaznerengan izugarrizko amorrua sortarazi zuen. Bere bi hankekin egiten zituen mugimendu azkarrak eta bere aurpegian islatzen zen su beroak geldiezinak ziruditen. Bere hanketako batera nire eskua gerturatu eta izterra laztandu nion. Nire alderantz begiratu zuen eta bere begietan sua itzaliz zihoan bitartean, barru-barruan gordetako beldur eta zalantza guztiak ikustera gonbidatu ninduen. Alazne txikia ikusten nuen, bere segurtasun ezak lagun zituela. Begirada hutsarekin, ume txiki hori kontsolatzen saiatu nintzen, eta besoak bere lepoalderantz eraman nituen, berrakada bero bat eskaintzeko. Behar zuen, behar genuen. Apurtuta geunden barrutik, eta Leire zer esanik ez. Orain ikusi genuen nolako zauria zabaldu berri zion Kaietek.

Alazneren txikitako lagunak, mundu guztiarekin ondo eramaten zen mutila eta inguruko herrietako neska guztiak txoratuta zeuzkanak, gure bizitzak goitik behera aldatu zituen. Leireren 17 urteak izorratu zituen, ezertarako indarrik gabe utzita. Bere bizitza kondizionatu zuen betirako. Nik Perurekin horrenbeste gozatutako hori, Leirentzako amesgaiztoa bilakatu zen. Beldur nintzen ia lehengo neska alai hura berriaz bueltatuko ote zen.

Alaznek shock eran eman zuen hurrengo ordu erdia, ia hitzik esan gabe. “Puto Kaiet de mierda” besterik ez zuen esaten, aurpegia amorruz betetzen zitzaion bitartean. Leirek negarrez jarraitzen zuen nire sorbaldan. Nik ezin nituen malkoak barreanean eutsi eta pixkanaka nire masailetatik behera zihoazen, geroz eta indar handiagoarekin. Kuadrillakoak tabernatik ateratzen ikusi nituen eta gu ikusi bezain laster, guregana etorri ziren. Gertatutakoaren inguruko lehen galderekin batera, besarkadak ematen hasi ziren, banan-banan. 12ok familia ginen, eta inoiz baino indar gehiago eman zigun horrek aurrera jarraitzeko. Maite nituen neska horiek. Asko.

• • • • •

11:00. Etxera heldu berri naiz eta apurtuta nago. Sukaldera sartu eta papertxo bat ikusi dut mahai gainean, nire gurasoek mendira joan direla abisatzeko utzitakoa. Beste izkinara begiratu eta nire anaiak utzitako kruasana txepelduta ikusi dut. Irribarre txiki bat atera zait, eserleku batean jarri eta kruasanari mokadu bat ematen diodan bitartean. Zapatila zikinak kendu eta zuzenean komunerantz abiatu naiz, dutxa on baten beharra dut. Ispilura begiratu eta nire aurpegiak barruan sentitzen dudana islatzen duela konturatu naiz; begi jausiak, izugarrizko poltsekin azpialdean. Ilea moño jausi batean batuta, tximak leku guztietatik agertzen direla. Aurpegia gorri-gorri eginda, horrenbeste negar egiteagatik.

Nahiz eta bihotza birrinduta izan, nire buruari irribarre bat bota diot, malkoek begietatik irristatu eta beherantz joango direla mehatxu egiten didaten bitartean. Ingu-ruan daukatenaz harro, eskertuta nago. Gaurkoak denok gaingitu gaitu, baina aurrera jarraitzea besterik ez dugu. Badakit ez nintzatekeela pozik egon beharko, baina banago. Badakit garai gogorra daukagula aurretik, baina ezin ditut borrokatzaile hobeak alboan izan gerra honetan, Leire loturik mantentzen duten soka guztiak hautsi arte amore emango ez dutenak. Behingoagatik, bakean sentitzen naiz. Osorik.



Aroa Elortza

Bosgarren taldea

I. saria

Poesia

Erdibitu erdiminduak

Valentziaga

BIZIAK ETA HILAK

Egun zehatz batzuei begira,
horrela bizi gara guztiok:
Lehen aldiz x egingo dugun eguna,
Ala lehen aldiz y gertatuko zaigun unea,
Edo lehen z esperientzia berria bizitzea.
Ez gara jabetzen askotan
baina bai,
Halaxe bizi gara:
Bizitzari begira;
Eta konturatu orduko
bizitza bera joan da.

Nork ez du amesten
lehen aldiz
ikastolara
joateko egunarekin?
Izan zeure lehen eguna,
zeure seme-alaba
edota bilobarena.
Lehen aldiz
gurasoen eskua askatu,
Erraldoia zaizun tokian
bakarrik.
Horren tematurik egonik
lehen aldia oroitzearekin,
Ez gara gogoratzen garrantzitsuenaz:
Jolasteaz, ikasteaz.
Izan ere,
Jada ez dakigu jolasten,
ahaztu egin zaigu
denboraren iraganarekin.

Oroitzapen zehatz batzuei begira,
horrela hiltzen gara guztiok:
Azken aldiz z abiatuko dugun eguna,
Ala azken aldiz y gerturatu zitzaigun unea,
Edo azken eguna bizitzea.
Ez gara jabetzen askotan
baina bai,
Halaxe hiltzen gara:
Bizitzari begira;
Eta konturatu orduko
heriotza bera etorri da.

Nork ez du oroitzen
azken aldiz
ikastolara
joandako eguna?
Izan zeure azken eguna,
zeure seme-alaba
edota bilobarena.
Azkeneko aldiz
gurasoen eskua heldu,
Erraldoia zitzaizun tokian
jendez inguratutik.
Horren tematurik egonik
azken aldia amestearekin,
Ez gara gogoratzen garrantzitsuenaz:
Txiki izateaz, desikasteaz.
Izan ere,
Jada ez dakigu bizitzen,
ahaztu egin zaigu
denboraren etorrerarekin.

Lehen hortza erortzeko
pozarren geunden.
Kili-koloka hastean
beldurrik ez genion
atean haria jarri
eta tira egiteari.
Baina nork oroitzen du
Orain
Min gazi-gozo horren plazera?

Handitzearekin batera
Lehen aldiak ere
interesgarriago bilakatzen dira:
Lehen suspentsoa
eta horrek sortutako tristura,
Lehen parranda
eta hurrengo goizeko biharamuna,
Lehen maitasun istorioa
eta ahaztu nahi
ez den muxua.

Lehen muxua,
Nerabezaroan sartzeaz bat
amesten den unea.
Ziur aski oroituko zara
norekin izan zen,
Edo zein baldar eta trakets aritu zinen.
Baina ahaztu dugu jada
zein biziak ziren momentu hartan
Tripa barruko tximeletak
edo nola geunden dardarka.

Lehen muxuaren ostean
iritsi ziren lehen aldi berri asko,
Esperientzia horretatik aurrera
guztia dela ezberdin sentitzen baita.

Azken hortza mantentzeko
triste geunden.
Kili-koloka hastean
izua, frustrazioa genion
mahaiko plateraren aurrean jarri
eta murtxikatzen hasteari.
Baina nork ahazten du
Orain
Min gazi-mingots horren sufrimendua?

Txikitzearekin batera
Azken aldiak ere
zabar bilakatzen dira:
Azken lan-eguna
eta horrek sortutako poza,
Azken mozkorraldia
eta hurrengo asteetako biharamuna,
Bizi osoko maitasun istorioa
eta ahaztu nahi ez
baina ahazten den azken muxua.

Azken muxua,
Zahartzaroak aurrera egin ahala
ikara sortzen den unea.
Ziur aski ahaztuko zaizu
norekin izan zen,
Edo zein goxo eta maitekor aritu zinen.
Baina Alzheimerren memorian dirau
zein biziak ziren momentu hartan
Buru barruko galderak
edo nola geunden galduta.

Azken muxuaren ostean
iritsi ziren azken aldi berri asko,
Esperientzia horretatik aurrera
guztia pixkanaka itzaltzen baita.

Jadanik ez zara horren umea;
Nagusitu zara,
fruituek egiten duten lez.
Lehen aldiz maitasuna egitea,
zer nolako esperientzia!
Onerako edo txarrerako,
baina ahazten ez den horietakoa.
Maitasuna egitea esan arren,
Nor saiatu da benetan maitasuna
Egiten? Maitasuna ez da egiten,
Sortu, baizik.

Orain berriro zara umea;
Gaztetu zara,
haizeak egiten duen lez.
Azken aldiz maitasuna eskaintzea,
zer nolako esperientzia!
Onerako edo txarrerako,
baina pixkanaka ahazten den horietakoa.
Maitasuna eskaintzea esan arren,
Nor saiatu da benetan maitasuna
Eskaintzen? Maitasuna ez da eskaintzen, tru-
kean jaso, baizik.

ASKE KARTZELAN ETA PRESO KALEAN

Zein zailak diren
Orduak
Kartzelan,
Barroteen atzean.
Zein zailak diren
Orduak
Bakardadean,
Emakumearen azalean.
Zein zailak diren
Orduak
Ilunpean,
Izarrik gabeko sabaian.

Zein luzeak diren
Egunak
Arrotza bilakatu zaizun gorputz batean.
Luzeak dira egunak,
Eta luzatu zaizkit bularrak beherantz,
Grabitatearen eraginez,
Edo malkoekin batera
Horiek ere erori direlako.

Zein zailak diren
Orduak
Kalean,
Gainerakoei eskean.
Zein zailak diren
Orduak
Noraezean,
Beltz koloreko larruazalean.
Zein zailak diren
Orduak
Argipean,
Teilaturik gabeko etxean.

Zein luzeak diren
Egunak
Arrotz, kanpotar bilakatu zaituen herri batean.
Zikinak dira egunak,
Eta likistu zaizkit oinak zetakaz,
Kalearen eraginez,
Edo pentsamenduekin batera
Horiek ere lohitu direlako.

Zein luzeak diren
Hilabeteak
Hilerokoak itxaronez zenbatzen direnean.
Luzeak dira hilabeteak,
Odol-jarioaren
Esperoan zaudenean.
Itxaroten duzu odola iristeko,
Eta agian
Hil horretan
Guztiz odol-hustuko zarela uste duzu,
Eta orduan amaituko dela guztia,
Espero ez zenuen moduan.

Zein luzeak diren
Urteak
Etetik urrun zaudenean.
Luzeak dira urteak,
Denbora pausatu dela dirudi
Eta ez zarela zahartzen;
Baina, aldi berean,
Ilea urdintzen da
Eta bizipoza belztu
Iluntasuna nagusi den ziegan.

Zein luzeak diren
Tximak eta minak.

Zein luzeak diren
Paretetako pitzadurak
Eta hitzen higadurak.

Zein luzeak diren
Besapeko ileak
Eta hanketako alanbreak.

Zein luzeak diren
Esperoko egunak

Zein luzeak diren
Hilabeteak
Diru-laguntzari itxaronez zenbatzen direnean.
Luzeak dira hilabeteak,
Tripa-zorria isilaraziko dizun
Zerbaiten esperoan zaudenean.
Itxaroten duzu janaria iristeko,
Eta agian
Hil horretan
Gosez akabatuko zarela uste duzu,
Eta orduan amaituko dela guztia,
Espero ez zenuen moduan.

Zein luzeak diren
Urteak
Etetik urrun zaudenean.
Luzeak dira urteak,
Memoria pausatu dela dirudi
Eta ez zarela oroitzen;
Baina, aldi berean,
Bihotza iluntzen da
Eta azala argitu
Zuriz inguraturiko lurraldean.

Zein luzeak diren
Begirakuneak eta afera-uneak.

Zein luzeak diren
Neguko hotzak
Eta kaleko hotsak.

Zein luzeak diren
Kaleetako artelanak
Eta arropetako orbanak.

Zein luzeak diren
Zubiperko egunak

Eta esperotako egunak.

Eta zubi egunak.

Zein luzeak diren
Begietako zimurrak
Eta bihotzaren murmurak.

Zein luzeak diren
Mespretxu begiradak
Eta tristura boladak.

Zein luzeak diren
Eta zein luze egiten dituzten.

Zein luzeak diren
Eta zein luze egiten dituzten.

GALERAK

Zenbat galtzen duen
Entzuten duenak
Entzun nahi ez duenean.
Eta zenbat galtzen duen
Entzun nahi duenak
Entzun ezin duenean.

Zenbat galtzen duen
Ikusten duenak
Ikusi nahi ez duenean.
Eta zenbat galtzen duen
Ikusi nahi duenak
Ikusi ezin duenean.

Ixten dira gorraren belarriak
Eta amaitu kaleko harrabotsak;
Entzuten duenak, ordea,
Estaltzen ditu belarriak
Eta galdu berez entzun beharko lukeena.
Entzuleak baleki
Zenbat une galtzen diren
Belarriak kukutzean;
Gorrrak baleza
Une horiek bizitzen,
Belarriekin ikusi, dastatu, ukitu,
Usaindu eta entzuten,
Belarriekin bizitzen.

Itzaltzen dira itsuaren begiak
Eta belztu basoak zein mendiak;
Ikusten duenak, ordea,
Ixten ditu begiak
Eta ezikusi berez ikusi beharko lukeena.
Ikusleak baleki
Zenbat momentu galtzen diren
Begiak hetsi edo zarratzean;
Itsuak baleza
Momentu horiek bizitzen,
Begiekin entzun, dastatu, ukitu,
Usaindu eta ikusten,
Begiekin bizitzen.

Zenbat galtzen dugun
Entzuten dugunok
Aditzen ez dugunean.
Eta zenbat damutzen garen,
Sarri,

Zenbat galtzen dugun
Ikusten dugunok
Behatzen ez dugunean.
Eta zenbat damutzen garen,
Sarri,

Gehiegi entzuteagatik.
Izan ere, hori da bizitza:
Batzuetan horrenbeste
Eta beste batzuetan horren murrizta.

HOTZ-EPELA

Ahaztea eta
ahaztua izan zarela onartzea,
Dena ez dela
uste bezain polita ohartzea,
Mundua zutaz ahanzi
Eta gainera zure aurka oldartzea.

Lorea hotzarekin ihartzea.

Egunik beroenean ere
Hutsunearen hutsunez,
hotza sentitu eta izoztea;
Eta kaleko hotsa saihestea,
Norbere lotsa ahaztu
eta bihotza ulertzeko.

Eta landarea, bere osotasunean, zimeltzea.

Agian ez duzu ulertuko
esan nahi duena
Baina bai eman duena,
Jasan duena,
Igaro duena.

Ahaztua izatea ez delako
Oroitua ez izatearen berdina.

Gehiegi ikusteagatik.
Izan ere, hori da bizitza:
Batzuetan horrenbeste
Eta beste batzuetan horren murrizta

Oroitzea eta
oroitua izan zarela ulertzea
Munduak norberaren inguruan
Biratzen duela ustekabez jabetu eta uhertzea
Denak zu goraipatu
Eta inor zure aurka ez lehertzea

Landarea beroarekin loratzea.

Egunik hotzenean ere
Betearen betez,
berotasuna nabaritu eta urtea;
Eta isilpeko zurrumurrua gailentzea,
Norbere bihotza ahaztu
eta arrakasta ulertzeko.

Eta lorea, bere osotasunean, koloreztatzea.

Agian ulertu duzu
esan nahi duena
Baina ez jaso duena,
Saihestu duena,
Baztertu duena.

Oroitua izatea ez delako
Ahaztua ez izatearen berdina.

BI ETA BAT, BATA ETA BI

Duela urte dezente
Emakume batek erditu ninduen,
Hasieran bakarra izatetik
Sortuaz bi bizi eta mila bizipen.


Hori baino lehen, ordea,
Bik sortu zuten bakarra
Familia sortzeko
Nabaritzean beharra,
Eta zer izango ote da
Semea ala alaba?

Jolasten eta hazten
Irabazten eta galtzen ikusi ninduten
Eta orain onartu behar dute
Sortutako horrek nola alde egiten duen,
Garai batean kolorez jantzitako etxea
Berriz ere iluntzen
Eta zoriontasunez biluzten

Duela egun batzuk
Gizon batek ninduen erditu,
Denbora luzean bakarra izatetik
Tristuretara igaro eta bi izaten amaitu.

Hori baino lehen, ordea,
Bihotz bakarrak biren taupadak nabaritzen zituen
Maitasuna sortzeko
Beharra baitzuen,
Eta nork egingo ote du
Taupada altuen?

Gozatzen eta umetzen
Elkarrekin hasten eta amaitzen ikusi genuen
Eta orain ahaztu behar dugu
Bizitako uneek zenbat sentimendu sortzen dituzten,
Garai batean maitasunez jantzitako istorioa
Baldin bada itzaltzen,
Ez dela berpizten



Unai Larranaga

Bosgarren taldea
II. saria

Poesia
Redshift

Balentinaga

Redshift

Argi leunak
Arrosa usainak
Ospitale bezain garbi
Beheko sua bezain epel

Moztutako sagar usainak
Udako izara leunak

Argi gehixegi
Betaurrekuak jantzita nahikua

Zerua bezain garbi
Neguko salda bezain epel

Irrati zarata bezain lasai
Karrete argazkia bezain polit
Burkoa bezain eroso
Mozoloa bezain isil

Lakua bezain lasai
Lanbroa bezain polit

garrak baiño beruau
joder ze bero
bueno, aguantatzen da

Belarretan etzanda bezain eroso
Gaua bezain isil

Satorra baiño itxuau

Eklipsia dagolako eguzkixa ukatzen

Gertuegi egonda piperrik ez ikusten

Sitsa bezala argi berdiñei bueltak emuten

Bertatik urruntzen atzera begiratzen

Argixa illuntzen doia, betaurrekuak ixa kenduta

Detalliak ikusten, kiratsak haizian

Zurixa gorrira

Ezkerreko aurpegixak adi dabizte begira

Nik indakua oihuka errepikatzen

Lehengo sua gogoratzen dot

Ponpeia bezala, errautsei bildurra

Usainari, garbitasunari, isiltasunari, argiari...

Itxutu nauen izarrai bildurra

Izan naizenai beldurra

Keia saldu biharrian landatzen

Izarra bezala ketik jaiotzen


Urrun, egixa larrugorritan.

Ez dot jakin nahi

REDSHIFT

Fisikan eta astronomian, *gorriranzko* lerrakuntza (ingelesez *redshift*) objektu batek igorri edo islatzen duen erradiazio elektromagnetikoa, eskuarki argi ikusgaia, espektro elektromagnetikoan *gorrirantz* lerratzen denean gertatzen da.

Gorriranzko lerrakuntza bat argi iturri bat ikusle batengandik aldentzen denean gerta daiteke, soinu uhinen nabaritutako maiztasuna aldatzen duen Doppler lerrakuntza bati dagokiona.



Aranzadi ikastolako 6.
mailako ikasleak

Lehenengo taldea
Saria

Bertsoa
Drogak

Bakertziaga

Drogak

Droga edukitzea
dago legez kanpo
gorputzarentzat oso
ona ez delako.


Dopina hartzen dute
laguntza moduan
famatu askok dute
droga inguruan.

Drogak askotan dauka
atzean gezurra
onartu behar duzu
ez izan maltzurra.

Drogak txarrak direnez
ez hartu batere,
biziatu zaitzezke
agian zu ere.

Drogak kontsumitzeak
ondorioak ditu,
hauek hartuz gero
bizia suntsitu.

Neurritz kanpo hartuta
guztia da txarra,
eta ondorioa da
sarri zoritxarra.



San Martin Agirre
herri eskolako 5.
mailako ikasleak

Lehenengo taldea
Saria

Bertsoa

Jolas motak

Bakert

Jolas Motak

Jolastuz ere ikasi
dezakezu asko,
interesgarria da
kahoot guretzako.


Partxisa eta xakean
ibiltzen gara fin
mahaian jolasten dugu
denok elkarrekin.

Pantailaren aurrean
ai, zenbat denbora!
Asko gustatzen zaigu
hori izango da.

Denok jolastu dugu
noizbaiten kalean
korrika ta saltoka
elkarren artean.

Erabili behar da
daukagun sormena
burua erabili
eta sortu dena.

Kirola egitea
osasungarri da
gehiagi nekatzen du
joateak mendira.



Nagore Galeano

Bigarren taldea

I. saria

Bertsoa

Berrogeialdia

Balentsiara

Berrogeialdia

(DOINUA: Beste bateko inularretan)

1.-

Martxoak 12, osteguna
Cov-sars 2 zen notizia
15 egun eskolaik gabe,
hau da gure fantasia.
Hori pentsatu genuen denok
ikasleon iritzia.
Zetorkiguna ez genekien
jakintasun eskasia.

2.-


Lehenengo egunak etxean
hori bai zan aspertzia!
Denbora asko geneukan libre
falta zitzaigun haizia.
Goizetako zer egina hau zen:
Meet-era konektatzia;
arratsaldeetarako planak
falta zaizkit kontatzia.

3.-

Bakoitzak zeregin ezberdinak
sofing edo gimnasia.
Batzuen helburuetariko bat:
sofinga ebitatzia.
Ondorengo plana izaten zan
zortzietan txalotzia.
Denok nahi genuen familia ta
lagunekin elkartzia.

4.-

Bi asteak pasa ziren eta
adostu zen luzatzia.
Gogor samarra bi hilabetez
gu etxian gelditzia
koronabirusa izan da ta
sekulako desgrazia.
Denok gaude honen esperoan:
birusa desagertzia.



Xabat Etxeberriarteun

Bigarren taldea

II. saria

Bertsoa

Bergarako jaiak


Bakertziaga

Bergarako jaiak

Gai berdinetan gabiz pentsatzen
denok azken egun hontan
Bitorianatxo jaisterakoan
giro ona egongo dan
euria ta trumoiak badaude
bai ohituta halakotan
suerte apur bat badugu ta
eguzkia itekotan.

Pentekosteak badatoz eta
ez dut uste edatea
bigarreanean ondo ikusi
barraketan ibiltzea
kuadrillan azkenengo plana
kamisetak egitea
primeran pasa pasatu gabe
espero disfrutatzea.

Lehenik eta behin behar dut nik
gozatu gau eta egun
whatsapetik lagunei galdetu
ea gaur ze plan daukagun
beste zertxobait egin ostean
jan txorizo ta babarrun
pare bat egunean beharko
denok barraketara jun
gauean oso ondo pasa ta
gero guk musika entzun.



Urko Arregi

Hirugarren taldea

I. saria

Bertsoa

2027

Valentín

1.-

Sartu zen lege aski han,
nola zerbezak saskian
Kapitalan marrazkian
Kovid-aren sarraskian
Nahiz okerrago geunden bi mila
ta hogeiko argazkian
Begira nola gauden bi mila
eta hogeita zazpian
mantxa marroi bat pueblo zigarro
bateko iragazkian
Terraza baten trago bat hartzen
kamara baten azpian

2.-

Tabernak ixten direla
oraindik goizegi dela
kaltetu daigun gibela
Benga! zuk ireki gela
11k dira ta joan aurretik
bukatu azken Amstela
3 patruila zipaio edo
agertzen dira bestela
Gaur badakigu lehen geneukana
irudipen bat bezela
Kontrol sozial onartezin hau
birusagatik ez zela

3.-

Etxe berrian goi ta behe
100 pulgadaren jabe
den pantaila parez pare
piztu ta jarri Eitb
Aurkezle gisa Iban Gartzia
eta "twin melody" daude
Noski beraien interesetan
hitzegiten dute gaur be
Itzaliko dut askoz hobeto
mahai inguruan gaude
Aztertu daigun zer galdu dugun
ia konturatu gabe

4.-

Proletalgoa hotzakin
Etxe huts baten giltzakin.
Kapitalistentzat panpin
ta zer egin zuten jakin.
Etxe ugari hustu zituzten
multekin eta porrakin
Gaur infernuan hotel bat dago
"Kovasevic" izenakin.
Indar gehiago xurgatu zuten
bihurtuz hainbat eraikin
Burgesentzako leku berriak
langileena zenakin

5.-

Nola arraintentzat presa,
nire bizitzan enpresa
batean sartzeko presa
izan ostean, sorpresa
ordainsaria hobetu zaigu
baina gainetik burgesa
militantzian borrokan gabitz
ea kentzen dugun BEZ-a
Frigorifiko batetik hartu
ditut orain bi zerbeza
oraindik ere lehengo moduan
arintzen dugu estresa

6.-

Bukatu aurretik "latilla"
Kovid dago erdi hila
bakunatuz jende pila
pasatu da nahaspila
enkaputxaje metodo on bat
da gaur egun maskarila.
Jada holako elkarriketak
eduki ditugu mila
berandu egin aurretik goazen
biok lotara mutila
egun berdin bat daukagu bihar
zerbait berriaren bila



Itziar Olaizola

**Hirugarren taldea
II. saria**

Bertsoa

Lerro artean

Balentinaga

Lerro artean

1-

Gaur egun modan ez dagoela
nahiz entzun behin eta berriz
hainbeste orri pasa ditugu
ilusioz, begi argiz
esan nahi nuke irakurtzeak
ditula onura anitz
batzuk ikasi ditzakezunak
bertso hauek irakurriz.

2-

Instagram, Twitter, Facebook ta TikTok
dena ez al da itxura
tableta eta mobilarekin
ze mania, ze ohitura
Telebistari off eman eta
ez egin hainbeste duda
irakurtzeak laguntzen baitu
gainditzen hamaika muga.

3-

Liburu batek zer dakarkigun
aipatu nahi dut aurrena
paper loditan bista pausatuz
hizki-kate gozarena
gure barnean sentitzen dugu
besteen poz eta pena
gertuxeago sentiaraziz
aurretik arrotza zena.

4-

Txina, Egipto ta Filipinak
Jamaika, Itsaso Bare
Hego Afrika, Alemania
Japonia, Kopenhage
lurrez, itsasoz edota hegan
mundua alderik alde
zeharkatzeko txartela hartu
etxetik mugitu gabe.

5-

Nobela beltza, poliziakoa
poesiaren minbera
ipuin zaharrak, egunkaria
abentura, saiakera
bertsolaritza ta fantasia
fikzioaren nahiera
genero asko daude aukeran
unearen arabera.

6-

Tristurak ito eta zentzurik
ez hartzean bizitzari
edo poz-pozik zaudela eta
ezin eutsiz irriari
ulertu nahian zabiltzanean
bat-batean dena argi
norbaitek hitzak jarritakoan
zuk sentitzen duzunari.

7-

Lagunik gabe zabiltzanean
zeinen momentu traketsak
gauetan ezin lo egin eta
egunak badira beltzak
istorio batek esna ditzake
berriro zure ametsak
liburua hain lagun ona da
bakarrik dagonarentzat.

8-

Irakurtzeak eman zaitzake
infernutikan zerura
eguzki epel, itsaso zakar,
goizeko ihintzaren ura
azken finean bizigarria
ez al da literatura
oharkabeen zabaltzen baitu
leiho berri bat mundura.



Elene Aranburu,
Ane Ibarra,
Iraia Larranaga eta
Gorka Reparaz

Lehenengo taldea
Saria

Komikia
Halloween gaua

Balentinaga




Maialen Arregi, Ainhoa
Gonzalez, Henar Lopez
eta Malen Pineda

Lehenengo taldea
Saria

Komikia

The white investigators

Baleiznaga





Edurne Berraondo

Lehenengo taldea

Saria

Komikia

Zirkuko istripua

Balentsiaga



Uxue urduri jartzen hasita dago, hori ez da batere ona.



Uxue oso pozik zegoen bikain egiten baitzuen. Laster zirkura joan ahal izango da ekilibristarena egitera.



Arratsalde eguzkitu bat zen. Uxue izeneko neskatia bat bere ametza aurrera eramateko entrenatzen hasi zen.




Uxue sendatu eta seguruan ezagutu zuen Peru. Orain lankideak dira eta herri berri ibiltzen dira zirkuan.



Uxue, ezin izango zara ekilibrista izan, baina orain palazo izan nahi du. Gainera, oso ondo pasatuko du.



Uxue jauzi egin da. Lehenengo egunean ezin izan da horrenbestaraino heldu, hurrengoan bi hantekin eginda nahiko.



Jon Errasti

Hirugarren taldea


I. saria

Komikia

**Etorkizuneko
presoak**

Balentinaga





Idoia Martinez

Hirugarren taldea

II. saria

Komikia

SOS aditzak



